

ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 20a / 611. zenbakia

URTE BERRI ON

Horra,
gure Olentzero



Arrasate Press
Olentzero
marraski
lehaketa'ko
arabazlea.
Egilea: Oihane
Urzelai, 11 urte.

ORAIN ETA HEMEN: BADATOR OLENTZERO/7 • GAZTEAK: BERRITASUNAK TXIKILANDIAN /27

SANTAMASAK 2002/35-42

Urte barri-barri
txarri-belarri
daukanak
ez daukanari
kolkua bete
madari!

Zuen zerbitzura



Arrasateko Udala

KALE INKESTA/ Santamasetan ze ez dozu galtzen sekula be?



LUIS MARIANO GÓMEZ
Langillie



MANOLI AMADOR
Langabie



JUANI MERINO
Etxekoandrie



AMAIA ARROITIA
Langillie



JON BARANDIARAN
Ikaslie



RICARDO ZABALA
Jubilaue

Baserritarren postuek ikustie gustetan jat; gauza batzuk erosten dittut, baiñe, gehixenbat, gauzak ikustie izeten da. Bezperan parrandaren bat egin dot, baiñe gura dot hurrengo goixekue.

Azokie ikustie gustetan jat, eta taluek jatie be bai. Batez be, azokie ikusten dot. Bezperan ez dot urteten; hurrengo egunerako zainketan naz. Goix osue kanpuen emuten dogu.

Artisautzaren ohitturie gustetan jat; txorizuen, fruten postuek... Dan-dan hori ikusten dot, eta zeozer be erosten dot. Bezperan ez dot urteten, umiek etxien egoten naz.

Batez be, goixeko ambientie. Gabetan ez dot askorik urteten... Azokie eta hori dana ikustie gustetan jat. Erosi baiño gehixago, ikusi egitten dot, baiñe zeozer be erosten dot.

Batez be, goixeko ambientie, azokie... eta hori. Bezperan, parrandie egitten dot, baiñe parrandaren ostien, hurrengo goixien azokie ikustie gustetan jat. Danetik apur bat egitten dot.

Jaixe, dana gustetan jat. Azokie dan-dana ez dot ikusten, baiñe postu batzuk ikusten dittut. Artisauek pasadizuen ikusten dittut, Portaloikuek... Bezperan, batzuetan urteten dot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ESTALI BAKO ZULOA Udala plazako biribilunean, errepidean, zulo bat dago, eta autogidari asko kexu dira. Abuztuan, errepidea zulatu egin zuten kolektorearen lanak egiteko. Horren ondoren, zuloa estali egin zuten, baina duela hilabete batzuk, berriro agertu ziren zuloak. Aurreko astean, norbaitek txapa batzuk jarri ditu, baina gidari askok uste dute hori ez dela konponbidea.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KULTURA /17

ZAHARRAK /31

Aparkaleku gehiago

Laubide eta Garibain 300 bat aparkaleku egiteko aurreneko pausoa egin du Udalak.

Gari, Montxo eta Joselontxo

Bihar, zapatua, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak arituko dira Amaia Udal Antzokian.

Santamasak elkarteetan

Santamas Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuta dituzte herriko zaharren elkarteetan.

ASTEKODATUA

280

KILO PISATZEN DU 'TXOLIN' TXERRIAK

Aurtengo Santamasetako txerriak, *Txolin*-ek, berrehun eta laurogei kilo pisatzen du. Aurreko urteetako Santamasetako txerriak bezalaxe, Elezgarai base-rrian hazi dute *Txolin*.


BESTEKEESANA

“ Arrasatekoa naiz, 22 urte dauzkat eta beti Arrasaten ikasten aritu naiz: lehenengo, Eskola Politeknikoan

eta gero, Mondragon Unibertsitatean. Ikasketak gogorrak izan dira, esfortzu handia egitea eskatzen dute eta denbora asko eskaini behar zaio ikasketei. Nik, bigarren mailan hasi nintzanetik, ikasketak eta lkerlan enpresan lana tartekatuta izan ditut. Ikerlanen egin dut ikasketetako proiektua. Une honetan industria ingeniari izateko bigarren zikloa ikasten nabil eta baita ere lkerlanen lanean. Aurretik ez nuen Unibertsitateko txosten akademiko- en gaineko sariketa hori ezagutzen, baina ilusio handia eman dit”

MIKEL EZKURRA
'EL DIARIO VASCO' /02-12-11

ALKATEAREN AGURRA/ Xabier Zubizarreta



Aurtengo neguen Unetxo batez

SANTAMAS EGUNE

Negu-gune

Negu-negu Gune-gune Egunez egun Aurtengoz be Egundo Egingo dogune

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 20
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

ZAPATUA, 21
Azkoaga, Iturriotz 943 77 79 99

DOMEKA, 22
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

ASTELEHENA, 23
Irizar, Erguin 11. 943 79 12 39

MARTITZENA, 24
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74

EGUAZTENA, 25
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30

EGUENA, 26
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

Arrasate
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILIAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza. . . 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

SANTAMAS BEZPERA
Zapatuan, 17:00etan, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak, Amaia Udal Antzokian; 19:00etan, erraldoi eta kilikiak, txerriaren aurkezpena eta txartelen salmenta; 19:30ean, Incansables txarangaren kalejira; eta 23:00etan, dantzaldia Izotz taldearekin.

SANTAMAS EGUNA
Domekan, 09:30etik bazkalordura arte, erdialdean saltoki ugari jarriko dituzte; 10:00etan, herriko plazan, Txotx jaia eta taloak; 10:00etan, Laubide plazan, Zetzeria; 10:30ean, Jokin Zaitegi plazan, artisauak; 11:00etan, Laubide plazan, Umeen txokoa; 12:30ean, Zaldibarren, Aizkolari Txapelketa; 13:00etan, Zaldibarren, Iñazio Perurena; 14:00etan, plazan, Txerri dantza; 14:30ean, Uarkapen, herri bazkaria; 19:30ean, Amaia Udal Antzokian, bertso saioa.

OLENTZERO
Martitzenean, 12:00etan, Txoronpiok eta Txoronpiak Olentzeroren gutunak jasoko dituzte. 18:00etan, Olentzeroren irteera. 19:30ean, herriko plazan, Olentzeroren agurra, Mutil dantza eta Herri dantza.

AEDrenAGENDA

BERTSOZALEAK
AEDk antolatutako bertso-afarian izan ziren lagun batzuek erabaki zuten egubakoitz iluntzetan AEDko txokoa batzea. Zeuk ere parte hartu!

ZAHARBERRIKO IZENEMATEA
Zaharberri euskaldun zaharren eta euskaldun berrien premia dute.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Herriko beste hamasei elkarte, euskararekin

Herriko beste hamasei elkartek euskararen erabilpena areagotzeko hitzarmena sinatu zuten. Horien artean, Euskal Ezkerrak, III. Mundu Taldeak, Txikitxuk, EHNEK, Txalaparta Taldeak, Leintze Zeramika Eskolak, AGA-KOK, Txirindulari elkarteak, eta beste zortzi elkartek.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ipurterre"

1. Tomate erreusei esaten zaie.
-Tomate asko dago, baiña geixenak ipurterriak.
2. Zazpikia, jenio zitalekoa.
- Zittalaua ta ipurterriaua da eztakitt ze baiño.



JOSU OKINA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Santamasetan irratia zuzen-zuzenean

Domeka Santamas Eguna izanik, Arrasate Irratiak lan egingo du eta kalean izango den giroaren berri emango dizue, 10:00etatik 13:00etara. Kaleko giroa jasotzeko, kazetariak kalean ibiliko dira, jende artean. Gainera, Loteria Nazionaleko zozketa izango denez, zerbaki saridunak zeintzuk diren jakinaraziko dizuegu.

Abenduaren 23an eta 24an ere irrata lagun izango duzue, eta Gabon giroko elkarrizketak izango dira nagusi.



Irratia oporretan urtarrilaren 7ra arte

Abenduaren 25ean, Arrasate Irratiak oporrak hartuko ditu, eta urtarrilaren 7an itzuliko gara. Hala ere, azkenaldian egindako elkarrizketekin saio bereziak prestatu dizkizuegu, eta 09:00etan hasita izango dira entzungai. Azkenaldian eskaini dugun elkarrizketaren bat berriro entzun gura baduzu, jakinaraz diezaguzu. 2003an, indarberrituta eta tarte berriekin itzuliko gara. Bien bitartean, Gabon zoriotsuak eta Urteberri on!

HAUGIROA!

MINIMOA
Egubakoitza, 13 **0 °C**

MAXIMOA
Zapatua, 14 **16 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **0,4 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 11	14 °C	8 °C	0,7 l/m²
Eguena, 12	13 °C	1 °C	- l/m²
Egubakoitza, 13	12 °C	0 °C	0,2 l/m²
Zapatua, 14	16 °C	6 °C	- l/m²
Domeka, 15	12 °C	1 °C	- l/m²
Astelehena, 16	13 °C	1 °C	0,9 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efemerideak, zozketak, zorion agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

ASTELEHENA
20:00 MIR

MARTITZENA
20:00 Txortxorrien

EGUBAKOITZA
19:00 Planing Prest: Deiane Arrieta

ZAPATUA
11:00 Asteko elkarrizketak

DOMEKA
10:00-13:00 Santamasak 2002

Abenduaren 25etik urtarrilaren 7ra, elkarrizketak 09:00etatik aurrera. Ondoren, musika.

ASTEABIHITZETAN

Arrasate Musikalen kontzertu zikloa

Joan den astean hasi zen Arrasate Musikalek urtero egiten duen kontzertu zikloa. Hain zuzen ere, abenduaren 31ra arte egingo dituzte emanaldiak. Oraingo astean, adibidez, astelehenean eta martitzenean kontzertuak eman zituzten eta atzo, eguena, Amaia Udal Antzokian Gabonetako kontzertua entzuteko aukera izan zen. Tartean, Big Band taldea ere aritu zen.

Horrez gain, abenduaren 31n, martitzena, kontzertua izango da, Amaia Udal Antzokian, 13:00etan.

MU eta Mankomunitatea, lankidetzan

Hitzarmena sinatu dute Mondragon Unibertsitateak eta Debagoieneko Mankomunitateak. Lankidetzarako hitzarmena da, arlo sozio-ekonomikoarekin zerikusia duten ikasketa amaierako proiektuak egiteko, hain justu ere. Horren arabera, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Fakultateko ikasleek gure ibarrean egin ahal izango dute euren proiektua. Lantalde bi egingo dituzte, sei laguneko taldeak, eta Mankomunitatearen garapen sozio-ekonomikorako oinarrikoak diren proiektu bana egingo dute: *Debagoienaren azterketa sozio-ekonomikoa eta 1982-2002ra arteko eskualdeko datu basearen eguneratzea*, hain justu ere.

Itsuen zaindariaren egunekoak

Santa Luzia Eguna ospatu zuten, egubakoitzean, ONCE itsuen elkarteko afiliatuek eta langileek: 40 bat lagun batu ziren. Meza entzun zuten, lehenengo, San Juan parrokian. Gero, bazkaria egin zuten guztiek batera. Debagoieneko ONCEk ibarreko bost herri batzen ditu: Bergara, Oñati, Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaleta. 70 lagun daude afiliatuta; baina guztiak ez dira itsuak; beste mota bateko ezgaitasunen bat dutenek ere osatzen dute ONCE elkartea.



Palestina, zapalkuntzaren morrontzan

Palestinaren gaineko berbaldia izan zen Monterronen joan den astean. Amaia Arrizabalaga izan zen hizlaria, eta, besteak beste, Israelek eta Palestinak bizi duten egoera gogorraren berri eman zuen diapositiben bitartez. Izan ere, Amaia Arrizabalaga Palestinan izan zen uztailean.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Berezko indarra duen jaia

Esku artean daukazuen **ARRASATE PRESS** 2002ko azkenurrekoa da, eta datorren egubakoitzean, urtekaria jasoko duzue. Eta esku artean daukazuen zenbaki hau Santamas usainarekin dator. Santamasak motzak badira ere, askoren ustetan herriko jai onenak dira. Internazionalena, ostera, Maritxu Kajoi da. Ez da gure asmoa San Jua-

nak gutxiestea -San Juanak beste jai horiek baino makalagoak izateko ehunka arrazoi eta errudun daude-, baina Maritxu Kajoi eta Santamasak antolatzeke ardura duen lantaldea ia berbera da. Eta lan polita egiten dute urtero; horra hor emaitzak.

Bihar, zapatua, txerria kalera aterako dute. Santamas jaien protagonista

horren gainean tirabira asko izan dira. Izan ere, Santamasak ospatzen dituzten hainbat hiritan aurten ez dute txerririk aterako. Arrasaten, ostera, bai, baina zozketaren irabazleari ez diote txerririk emango, dirua baizik. Aurreko urteetan ere hori egin dute, baina Santamas Komisiñuek jendaurrean hori argitu gura izan du.

Hala ere, baliteke etorkizunean txerririk ez ateratzea. Hala bada ere, jaiak ez dute indarririk galduko.

ASTEKOIRUDIA



AITOR URIZAR

ELGETAKO BIKOTE BAT IRABAZLE ARRASATEKO X. DANTZA SUELTO LEHIAKETAN

Santamasak atzoka dauzkagu, eta aurreko asteburuak dagoeneko jai kutsua izan zuen. Abenduaren 15ean, domekan, Herriko Plazan, Arrasateko X. Dantza Suelto Lehiaketa jokatu zuten. Gipuzkoako hainbat herritako hamar bikote lehiatu ziren, guztiak 14 urtetik beherakoak. Horien artean, Ber-

garako hiru bikote eta bikote elgetar bakarra. Lehiaketak ikusmin handia piztu zuen, eta jende mordo hurreratu zen Herriko Plazara. Bikote bakoitzak fandangoa eta arin-arina dantzatu behar izan zituen. Eta, hala, bikote onena Ilart Bolinaga eta Andoni Elortza elgetarrek osatutakoa izan zen.

ARRASATE Zarugalde, 23. Tel.: 943 79 84 88

King's
ILEAPAINDEGIA

Izan zaitez
errege



Uriarte
SPORT

Ondo pasau
Santamas jaixak!

Olarte, 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE

ELKARRIZKETA

MAIDER ARRIARAN/MODA DISEINATZAILEA

“Ikasturte hau amaitu ondoren Bartzelonara joango nintzateke ikastaroren bat egitera”

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Maider Arriaran 21 urteko mondragoetarra da, eta urtebete geratzen zaio Moda ikasketak amaitzeko. Urriaren 17an, Gasteizko Villasuso jauregian izan zen moda desfilean lehenengo arropa-bilduma aurkeztu zuen.

Zelan hasi zinen diseinuaren esparruan?

Txikia nintzenetik gustatu izan zaizkit arropak. Gasteizen Diseinu ikasketak zeudela jakin nuenean, ez nuen bi aldiz pentsatu, eta horretan hasi nintzen.

Zer-nolako bilduma aurkeztu zenuen?

Emakume gazteetan oinarritutako bilduma izan zen; kalean janzteko arropa. Bildumak puntekin zuen zerikusia, eta oso arruntak ziren arropak. Osagarriak ere bazituen: poltsa, gerriko, txano eta ilerako begiztak ehungailu bidez egin nituen.

Ahalegin zaituz bilduma aurkeztu zenueneko sentsazioak deskribatzen.

Ikaragarritzko poza sentitu nuen... Oso gaitza da azaltzea. Horrenbeste jende norberaren

arropak ikusten egoteak benetan hunkitzen du.

Aurretik esan duzun moduan, zure bildumaren oinarria emakumea izan zen.

Bai. Lehen bilduma zenez, gazteendako zerbait egin gura izan nuen. Hala ere, horrek ez du esan gura beti pertsona mota berean oinarrituko naizenik.

Zer desberdintasun dago emakumezko eta gizonezko arropak diseinatzerako orduan?

Emakumezkoendako arropak aukera handiagoak eskaintzen dituzte gizonezkoendakoek baino, gizonezkoak janzterako unean itxiagoak dira-eta. Ibiltoki baterako edozer egin daiteke, baina janzteko unean erabiliko den zerbaiten diseinua egin behar da.


Ikasi dituzun tekniken arte-tik zein iruditu zaizu gaitzena?

Niretako gaitzena patroiak egitea da. Buruan ideia bat izaten da, baina ideia hori patroia egiterakoan berdin-berdin gertzea oso gaitza da. Garrantzi handien duen urratsa da, baita gehien kostatzen dena ere. Buruari buelta asko eman behar izaten zaizkio, gura den itxura lortu arte.

Ikasketak amaitzeko ikas-



Z.V.M.



“Emakume gazteetan oinarritutako arropa-bilduma aurkeztu nuen”

turte hau bakarrik geratzen zaizu. Gerora begira baduzu proiekturen bat?

Ez daukat proiektu zehatzik. Edozelan ere, Bartzelonara joan gurako nuke. Han ikastaroren bat egin, eta modarekin zerikusia duen zerbaitetan lan egin. Eta, horrela, poliki-poliki modaren esparruan sartu.

Izen handiko diseinatzaile batekin lan egiteko aukera emango balizute, nor aukeratu zenuke? Eta nor ez?

Ez nuke bereziki inorekin lan egin gura, nahikoa izango litzateke izen handiko diseinatzaile batekin egingo banu lan. Esperientzia polita izango litzateke-

“Ez nuke inola ere Agatha Ruiz de la Pradarekin lanik egingo, asko errepikatzen du-eta”

la uste dut, eta asko ikasiko nuke-ela. Hala ere, ez nuke inola ere Agatha Ruiz de la Pradarekin lanik egin gura. Originaltasunik ez duela iruditzen zait, eta diseinuak errepikatu egiten dituela.

Urriaren 17an aurkeztutako arropa edo gehigarrien arte-tik zein iruditu zitzaizun gaitzena egiteko?

Gaueko soinekoak eman zidan lan handien: gona bat bestearen gainetik, gerri aldean biak lotuta. Horrek zailtasunak eman zizkidan. Gerruntzearekin ere arazoak izan nituen: puntaduna zen, eta zati ezberdinekoak zirenez, punta guztiek bat egin zezaten ahaleginu behar nintzen.

“Horrenbeste jende norberaren arropak ikusten egoteak benetan hunkitzen du”

Esan digutenez, arropa-bildumako soineko bi Miss Linda lehiaketara eramateko aukeratu zituzten.

Bai. Gasteizko akademia baten ari naiz ikasten, eta akademiako modelo bat azaroaren 24an Benalmadenan (Malaga) izan zen, Miss Linda lehiaketan. Nik diseinatutako soineko bi eraman zituen, beste zortzi jantzirekin batera, eta horregatik nire soineko bat bakarrik erabili zuen. Ez nuen espero nire arropa aukeratu zutenik Estatuko moda txapelketa baterako; asko poztu nintzen. Jende askok ikusi zuen jantzia, eta orain, emaitzarik ematen duen itxaron beharko dut.

GABONAK/BADATOR OLENTZERO

Dagoeneko Arrasatera bidean da gure Olentzero

UBANE MADERA

Olentzerok Arrasatera bidean dela jakinarazi digu gutun baten bitartez. Betiko moduan, Txoronpiorekin eta Txoronpiarekin etorriko da gure ikazkina. Era berean, herritarrei baserritar jantzeko eta berarekin abesteko eskatu gura die.

Edozelan ere, Olentzerorengana joan aurretik, haren laguntzaileekin izan beharko gara. 12:00etan irtengo dira Txoronpio eta Txoronpia, Udala plazatik, Olentzerorendako umeen gutunak batzera; Uribe auzorako bidea hartuko dute handik; eta gero, 12:30ean, San Andresko zabuetan izango dira; Musakolarak joango dira gero, hango zabuetara; eta handik, Santa Teresako plazara. Altamiran bukatuko dute erronda; eta horren ondoren, Portaloira joango dira, 13:30ak inguruan.

BASERRITAR JANTZITA

Batutako gutun guztiak Olentzerori eman, eta hura martitzenean, 18:00etan, hasiko da Arrasaten lanean. Olentzerok egingo duen ibilaldiaren berri eman aurretik, esan beharra dago eskaera berezia egin diela ikazkinak arrasatearrei: berarekin batera abestera joan daitezela, eta baserritar jantzita.

Horrela, bada, Zaldibartik irtengo da Olentzero; Portaloira joango da handik; eta gero, Ota-



ARRASATE PRESS

Arratsaldeko seietan irtengo da Olentzero, Zaldibartik.

lora aldera; Zarugalde kalea ere bisitatuko du; eta segidan, Udala plazaraino joango da; San Andres auzorako bidea hartuko du horren ondoren; eta gero, Garibain zehar berriro Portaloitik pasatuko da, Herriko Plazaraino.

Han bukatuko du ibilaldia. 19:30ak aldera izango da hori, Olentzerori agur esateko garaia.

Mutil dantza eta Herri dantza eskainiko dizkiote han.

GAUEAN, ISIL-ISILIK

Eta gero, guztiok dakigun moduan, opariak banatzen hasiko da gure ikazkina, jo eta su, gaueko isiltasunarekin bat. Poliki-poliki, erregaluz betetako zakua hustuko du Olentzerok Arrasateko etxebizitzetan.



AITOR URIZAR

Hogei bat pieza ditu San Andres parrokiako batzordearen jaiotzak.

Gabonetako jaiotza bihar, zapatua, inauguratuko dute

UBANE MADERA

Laubideko lorategietan ipiniko dute San Andres parrokiako batzordeak egindako jaiotza. Bihar, zapatua, inauguratuko dute; jaiotzaren argiak piztuko dituzte. Jaiotza errespetatzeko eskaera egin dute.

Joan den astean ekin zioten jaiotza ipintzeari, eta biharko gertu izango da. Iazkoaren moduan, 20 bat pieza izango ditu: Olentzero, Errege Magoak, jaiotza bera eta animaliak, besteak beste. Hori bai, haien osagarri asko berriak izango dira; izan ere, iaz jaiotzan egin zituzten apurketen ondorioz gehienak egoera txarrean gera-

tu ziren. Horren ondorioz, aurten ere gastu handia egin behar izan dute San Andres parrokiako batzordekoek. Eta gastu horietan lagundu gura dutenendako kontu-korronte bi zabaldu dituzte: Euskadiko Kutxan (3035 0202 7 1 202.1.02246.7) eta Kutxan (2101 0123 98 01 23 93 67 91). Aurrez eskerak eman gura diete laguntza emango dutenei.


Era berean, iazkoa ikusita, jendeak jaiotza errespetatzea eskatu dute.

Esan bezala, jaiotzaren ekimena San Andres parrokiako batzordeak antolatu du, baina San Juan parrokiako batzordearen eta Gipuzkoako Elkarte Belenistikoaren laguntza ere izan du.

BOLIÑETE

OILASKO ERRETEGIA
Bertan jateko edo eramateko.
Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

PUB HAIZEA



S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ARPE

Ile apaindegirako artikulua

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

Aretz

Taberna

Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

HIRIGINTZA/APARKALEKU GEHIAGO

Laubide eta Garibaiko aparkalekuak, aurrera

UBANE MADERA

Udalbatzarrak onartu egin du Laubide eta Garibaiko aparkalekuak egiteko eman behar den aurreneko pausoa. Orain, lanok egiteko enpresen eskaintzak jaso eta gero adjudikatuko dituzte. 300 bat aparkaleku egingo dituzte han.

Alderdi politiko guztiek onespina eman diote Laubide eta Garibaiko aparkalekuak egiteko aurreneko pausoiari. Horrek esan gura du laster lanok adjudikatuko dituztela. Xabier Zubizarreta alkateak esan zuenez, datorren urtearen erdialde inguruan lehenengo lanak egin ahal izango dituzte. Eta gaineratu zuen Maalako biribilunearen ondotik BBVA ondoraino iritsiko direla aparkalekuak. Gutxienez, 300 aparkaleku izango ditu; horietatik, 150 bat-edo libreak izango dira, hau da, Laubideko aparkalekuen moduan funtzionatuko dute. Eta beste horrenbeste edo gehiago partikularrei lagatzeko izango dira: garaje moduan erabiltzeko salduko dituzte, 50 urterako. Aparkaleku horiek eskuratzeko lehenetara inguruko bizi-lagunek izango dute lehenengo lau hilabeteetan. Behin epe hori pasatuta, gainerakoendako epea zabalduko dute.

KOKAPEN EGOKIA

Aparkalekuen kokapena ere aipatu zuen alkateak. Maalako biribilunetik lehenengo hiltegiko biri-



ARRASATE PRESS


Hirurehun bat aparkaleku egingo dituzte lur azpian.

biluneraino errepide berria egiteko asmoa dagoela-eta, saihasbidetik herriaren erdiraino (eta aparkalekuetaraino) zuzen-zuzen iristeko aukera izango da.

EGITAMU OROKORRAREKIN BUELTAKA

Bestalde, Arrasateko Udaleko kontuekin segituz, zinegotzi sozialisten taldeak orain dela gutxi Udalak onartu zuen Egitamu Oro-

korrarekin ezadostasuna adierazi du berriro ere. Herritarren etxeetara bidali duten ohar baten bidez, Arrasateren etorkizunearako arriskutsua dela diote, "enpresen desjabetzeek lanpostuak galtzea ekarriko dutelako; eta "egitamuaren atzean interes ekonomikoak eta trapitxeo urbanistikoak" daudela ere salatu dute ohar horretan.



AITOR URIZAR

Arrasaten 21 lagunek egin zuten itxialdia udaletxean.

Lanuzteak eta manifestazioak izan dira Arrasaten

UBANE MADERA

Joan den asteko ekimenekin jarraituz, eta Duintasun Nazionalaren Eguna izenburuarekin, mobilizazioak izan dira Arrasaten. Atzo, eguna, bi orduko lanuzteak eta manifestazioak izan ziren.

Garzón epailearen osasun arazoek eragindako astebeteko atzerapenarekin, HBko, EHko eta Batasuneko Mahai Nazionaleko 20 kidek Espainiako Auzitegi Nazionaleko bosgarren instrukzio epaitegian deklaratu dute gaur, egubakoitza, goizean. Baltasar Garzonek ETako kide izatea leporatzen die 20 politikari

horiei. Horren aurrean protesta egiteko, mobilizazioak deitu zituzten atzoko (eguna). Arrasaten ere zenbait herritarrek bat egin zuten protesta horiekin, eta herriko leku batzuetan eguneroko jarduna geratu zuten 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Tartean, 11:30ean eta 18:30ean, manifestazioak izan ziren. Seber Altube plazatik irten ziren manifestaziook. Gogora dezagun, besteak beste, herriko 18 musika taldek bat egin zutela lanuzteokin.

Horrez gain, joan den astean ere izan ziren mobilizazioak Arrasaten. Horrela, egubakoitzean, 21 lagunek itxialdia egin zuten udaletxean eta gaua eman zuten osoko bilkuren aretoan.

LOS VAQUEROS

sport wear

Ondo pasau Gabon jaiak!!



izarra

• KOPISTEGIA •


- Fotokopiak
- Inpresio digitala
- Inprimategi lanak
- Plastifikazioak
- Koadernaketak
- Fax zerbitzuak
- Bulego materiala
- Ezkontza gonbitak
- Txartelak
- Kautxuzko zigiluak

Loramendi, 2-behea • 20500 ARRASATE • Tel./faxa: 943 79 21 61 • e-posta: izarra@izarra-kopistegia.com



SARA

MERENDERUE



EUSKAL HERRIAREN ALDE LANEAN ETA SUFRITZEN ARI
DIRENEI LAZTAN HANDI BAT ETA URTEAN ZEHAR GURE
ARTEAN IZAN DIRENEI ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

Tel.: 943 77 15 86 • ARRASATE

Aitor Peñagaritano izan zen Santamasetako Krosean azkarrena

XABIER URZELAI

Aitor Peñagaritano bergararra nagusitu zen, domekan, XV. Santamas Krosean. Lasterketak, baina, hiru protagonista izan zituen; Aitor Peñagaritano, Zuhaitz Ezpeleta eta Markel Blanco gaztea. Ikusteko modukoa da azken honek korrika zelan egiten duen.

Giro ezin hobea izan zen domekan Arrasateko erdialdean. Atletak mordoa animatu da aurten Santamasetako XV. Krosean parte hartzera, eta herritar asko izan zen lasterketa jarraitzen.

Joan den urteko irabazleak, Zuhaitz Ezpeletak, sekulako erritmoarekin hasi zuen lasterketa. Berehala aurreratu zen bedoñarra, eta inor ez zen gai izan haren erritmoa jarraitzeko, baina Zuhaitzek behera egin zuenean, atzetik zetorren Aitor Peñagaritanok aurre hartu zion. Elkar ondo ezagutzen dute atleta bi horiek, biak ere Antxintxika Debagoiena Taldeko atletak dira. Aitor Peñagaritanok 19 minutu eta 52 segundo behar izan zituen sei kilometroak egiteko.

Zuhaitz Ezpeleta bigarrena izan zen eta hirugarrena Markel Blanco atleta gaztea izan zen.



AITOR URIZAR

Nagusien eta gaztetxoaren artean, 131 lasterkari elkartu ziren domekan.

Hamahiru urteko atleta horrek nagusiekin batera korritu zuen, eta hirugarrena izan zen, 21 minutu eta 21 segundoko denborarekin. Parte hartzaileak eta ikusleak harridura geratu ziren gazte arrasatear horrek korrika zelan egin zuen ikusita.

Antxintxika Debagoiena Taldeak eraman zuen koadrila azkarrenaren saria, eta Luis Maria Ugarte izan zen beteterano mailan azkarrena. Emakumeetan, Mari

Fran Alonso izan zen onena.

GAZTETXOAK ERE, BIKAIN

Nagusien lasterketa ikusgarria izan zen, baina ordubete lehenago izan ziren gaztetxoaren lasterketek ere ikusmin handia piztu zuten. Ia 60 neska-mutikok hartu zuten parte gaztetxoaren lasterketan. Adinen arabera banatu zituzten lasterkariak, eta argi geratu zen atletismorako Arrasatek harrobi ederra daukala.

FOTOKIROLA



Pala eta pilota partiduak Uarkapen

Santamas jaien barruan, pala eta pilota partiduak izango dira ikusgai Uarkapen. Jaialdi polita izango da bihar, zapatua, arratsaldean. Lehenengo, pala partidu bat jokatu da: pala motzean Lujan kubatarrak eta Urkiak Undaren eta Errekalderen kontra neurtuko dituzte indarrak. Pala ezagutzen ez duzenok, jakin ezazue punta-puntako jokalariek direla. Segidan, eskuz binakako partidua izango da ikusgai: Unanue-Pascual eta Patxi Ruiz-Asier Olaizola izango dira aurrez aurre.

FOTOKIROLA



Frontenis Txapelketan, Candido Hurtado eta Jose Izquierdo nagusi

Zapatu goizean, Udazkeneko Frontenis Txapelketako finalak izan ziren jokoan, eta aurten ere Candido Hurtado eta Jose Izquierdo nagusitu dira. Finala Roberto Lópezen eta Oscar Mendozaren kontra jokatu zuten, eta 30-21 nagusitu ziren Candido Hurtado eta Jose Izquierdo. Hirugarrenen Iñaki Sánchez eta Kepa García izan ziren, eta laugarrenen, Gaizka Oruna eta Zigor Urain. /X.U.

SASKIBALOA

Kencik irabazi egin zuen Calasancioren kontra jokatu urteko azken partidua

Iker Zubiriaren mutilek bolada onari eutsi zioten zapatu arratsaldean Iturripen. Arrasatearrak Iruñeko Calasancio taldearen kontra 78-66 nagusitu ziren. Edozelan ere, zapatuan, Iker Zubiria ez zen izan aulkian; hala, Danel Ayastui jokalaria ohia aritu zen entrenatzaile lanetan, eta eginbeharrekoa ondo egin zuen.

Arrasatearrak ez ziren ondo hasi: defentsan ezin asmatu eta erasoan urduri samar. Horrenbestez, kanpotarrak aurreratu ziren markagailuan. Bigarren laurdenean etxekoek buelta eman zioten markagailuari, hirugarren laurdenean txarra izan zen, eta laugarren laurdenean partidua erabakita geratu zen.

ESKUBALOA


Senior mailako talde biek asteburu txarra izan zuten, biek ere galdu egin zuten-eta

AGR Arrasatek bigarren postua eskuratzeko aukera galdu zuen Legazpiko kantxan (25-22). Bernardo Balerdiren mutilek gaizki hasi zuten partidua, eta bigarren zatian legazpiarrek baino hobeto jokatu bazuten ere, ordurako markagailuan zegoen alde handiegia zen. Bigarren taldeak ere ezin izan zuen Usurbilen kontra irabazi (13-25): partidua Musakolan jokatu zen, eta bazirudien etxeko taldeak partidua irabazteko aukera asko zituela. Lehenengo zatian ondo ibili ziren Pitxi Herreroen mutilak, baina denboraldi osoko bigarren zati txarrena egin eta gero -hiru gol baino ez zituzten egin-, Usurbilgo taldea erraz nagusitu zen.

EZ HUTS EGIN KIROLA OPARITU

SPORTLAND

SPORTLAND ARRASATE. Garibal Etorbidea. 2-6 Gipuzkoa



ibai-arte

*Zeriontasuna aparirik ederrena...
Ibai-arterekin, gainera, 3.000 €*

Aldedi ■ Alonso Anaiak ■ Altuna ■ Anboto ■ Aranzabal ■ Arrasate Zoo ■ Arregi ■ Artea ■
Ausart ■ Bea ■ Beatriz ■ Bed's ■ Beinke ■ Belem ■ Ceciaga ■ Egizabal ■ Ehune ■ Elkoro
Expert ■ Eya ■ Eya ■ Elorza ■ Eroski Bidaiak ■ Erosle ■ Etxe Lan ■ Etxe Mobiliario ■ Euskadiko
Kutxa ■ Feli ■ Flash ■ Foto Imagen ■ Galeria 44 ■ Garagorri ■ Gili-Gili ■ Haurtxoa ■ Hemen
■ Hire ■ Ikatz ■ Itzala ■ Izozkitegi ■ J. Uriarte- Tamayo ■ J.G. ■ Juanma ■ Kajoi ■ Kilikolo ■
Klas ■ Kutxa ■ La Caixa ■ Laket ■ Landaluze ■ Lasagabaster ■ Lilura ■ Lorategi ■ Lore ■ Los
Vaqueros ■ Luko ■ Mabel ■ Marga ■ Markiegi ■ Maza ■ Milar Elkoro ■ Monte ■ Muruamendiaraz
■ Nerea ■ Oihana ■ Okendo Kirolak / Onandia ■ Otamendi ■ Parlane ■ Phildar ■ Portaloiko
Kioskoa ■ Sikol ■ Tokion ■ Tomas ■ Totem ■ Troko ■ Txuntxurunberde ■ Udalaitz ■ Ume ■
Uriarte Sport ■ Urrats ■ Zabaleta ■ Zarraoa ■ ZR ■ Zubia ■ Zubiaga ■ Zur-Lur



HERRI KIROLAK

Aizkolariak eta harri-jasotzaileak, domeka eguerdian, Zaldibarren

Santamasetako Aizkolari Txapelketan Urrezko Aizkora izango da jokoan

XABIER URZELAI


Aurtengo Santamas jaietan ere herri kirolekin gozatu gura duenak aukera paregabea izango du domeka eguerdian Zaldibarren. Hamabi eta erdietan, aizkolarien lana izango da ikusgai, eta gero, ordu batean, harri-jasotzaileen txanda izango da.

Santamasetan herri kirolek ezin dute kalerik egin, eta aurten ere, kale egin barik, Zaldibarko pilotalekuan harri-jasotzaileak eta aizkolariak izango dira.

Joan den urtean, Binakako Urrezko Aizkora Txapelketan Ollasagasti eta Jaunarena izan zen bikoteetako bat, eta bikote kontrarioa Nazabalek eta López Azpilikuetak osatu zuten, eta lehia polita izan zen Zaldibarren. Izan ere, hara hurreratutako zaleek gura adina gozatu zuten.

Aurten, beste lau aizkolarik hartuko dute parte Santamasetako Binakako Urrezko Aizkora Txapelketan: Larretxeak eta Mingegiak Arrosperiden eta Peñagarikanoren kontra neurtuko dituzte indarrak, eta, seguru asko, aurtengoa ere ikusteko moduko lehia izango da.

Iaz bezala, aizkolari bakoitzeko zortzi enbor jarriko dituzte. Horrela, aurkarien arteko desafioa zortzi enbor moztea izango da, eta ikusi egin beharko da zeinek mozten dituen zortzi enborrak lehenago, eta, horrenbestez,



ANDER GILLENEA

Aizkolarien lana izango da ikusgai domeka eguerdian Zaldibarren.

nork eskuratzen duen Binakako Urrezko Aizkora Txapelketa.

HARRIA JASOTZEN, PERURENA GAZTEA
Joan den urtean bezala, aurten ere Inaxio Perurena leitzar gaztea izango da Zaldibarko pilotalekuan. Gaztea bai, baina Inaxio

Perurenak sekulako sasoia daukala argi erakutsi zuen joan den urtean. Domekan, 205 kiloko harria esku bakarrarekin jasotzen ahaleginduko da Inaxio Perurena, errekorra hausteko. Seguru asko, aita ere ondoan izango du domeka eguerdian.

AUKEA

Datorren urterako kiroldegiko abonua berritu edo aldatzeko epea zabalik dago

Zabalik dago datorren urterako kiroldegiko abonua berritu edo aldatzeko epea. Eguaztena ezker dago zabalik abonuen gaineko aldaketak, alta edo baxak egiteko aukera, eta horretarako, AUKEA Kirol Erakundeko bulegoetara jo beharko duzue. Horrez gain, telefonoz edo posta elektronikoz ere egin ahal izango da.

Aurten berritasun bat izango da: Debagoieneko Kirol Txartela. Abonu mota horrekin, ibarreko gainerako kiroldegiak erabiltzeko aukera izango da. Informazio zabalagoa gura izanez gero, 943 77 16 77 telefono zenbakira deitu.

FOTOKIROLA



Santamasetako III. Boulder Txapelketa

Boulder Txapelketa arratsaldeko lauretan izango da. Joan den urtean, 35 lagun inguruk hartu zuten parte Boulder Txapelketan, eta aurten neska gehiagok parte hartzea dute helburu antolatzaileek. Sari asko izango dira, sari onak. /X.U.

Paraje eder baten kokatua

Atsedenerako behar den guztiarekin

Eupresa bilerak egiteko leku egokia

Dasta ezazu gure menurik goxoenak

Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

Eraman dotoretasuna eta plazerra zure etxera

*Bainu altzariak eta osagarriak.
Hidromasaje bainerak eta kabinak*

 **gelatza S.L.**


Zubillaga auzoa 1.
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22,
Faxa: 943 78 15 51

JANTZIDENDA

WWW.LASAGABASTER.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ETXE APAINKETA



=KANPAZAR



Gabon zoriontsuak!

Tailerra: Bizkaia etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 41 98 • Faxa: 943 77 12 84
Erakusketa: Araba etorbidea, 32 • Tel.: 943 79 77 66
20500 ARRASATE • Gipuzkoa





San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



ANTXINTXIKA TRIATLOI TALDEA, ONDO BAINO HOBETO

Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldea aurten sortu da, eta lehenengo denboraldi honetan ibarreko taldeak emaitza ezin hobek eskuratu ditu. Duetloietan ibarreko taldea lehena izan da, eta triatloietan bigarrena. Horrez gainera, Jon Aperribairi duatloietan Euskadiko Onenaren saria eman diote, eta Zuhaitz Ezpeleta bigarrena izan da. Hortaz, arrasatear bi lehenengo postuetan.



GARAGARTZAN ERE REALAK HARROBI ONA DU

Aspaldi honetan Garagartzako neska-mutilak gogor ari dira entrenatzen. Auzoko Txerri-hanka taldeak bultzatuta, Garagartzako gaztetxoendako entrenamendu saioak egiten dituzte, eta esan barik doa gazteek biziki eskertzen dutela hori. Realak maila berean jarraitu gura badu, harrobi ona beharko du, eta Garagartzan dagoeneko hasi dira horretaz arduratzen.

JOSE ANTONIO

gizonezkoen ile apaindegia

*Gabon
zoriontsuak!!*

Otalora lizentziaduna, 22 • ARRASATE • Tel.: 943 79 42 10

AREITIO kirolak

ONDO PASAU GABON JAIK ETĀ URTE BERRI ON!
25 URTE ZUEN ARTEAN

Zarugalde, 35 Tel: 943 79 38 38
20.500 ARRASATE





ATHLETICEKO JARRAITZAILE GAZTEAK SAN MAMESEN

Arrasaten Athleticen jarraitzaile amorratuak daude, eta ahal duten guztietan San Mamesera joaten dira, talde bizkaitarra animatzera. Aurten, talde zuri-gorria ez dabil aurreko urteetan bezain ondo; edozelan ere, argazkian azaltzen diren Gorka Arregik, Ane Arregik eta Andoni Arregik zorte ona eman zioten bihotzeko taldeari, partidu hartan Athleticen 4-1 irabaziz eta Espanyol taldeari. Talde zuri-gorriak orain arte egin duen partidu onenetakoa izan zen. Argi dago Arrasateko gaztetxoek gehiagotan joan beharko dutela San Mamesera.



SAN FRANTZISKO XABIER EGUNEAN EKINTZA UGARI

San Frantzisko Xabier Egunean, Arizmendiko ikasleek ondo baino hobeto pasatu zuten, eta, argazkietan ikusten denez, irakasleek ere ederto pasatu zuten eguna. Arizmendiko hainbat gunetan ekintza ugari egin zituzten. Argazkietan, esaterako, Ferixaleku gunean eta San Viator Txiki gunean egin zituzten bi ekitaldiren lekukoak ditugu: Ferixalekuan laugarren mailako ikasleen kontzertua izan zen, baina argazkikoak ez dira ikasleak, irakasleak baizik. Eskolan, besteak beste, txirula jotzen irakatsiko dute, baina argazkian rock talde gogor bateko partaideak dirudite; eta goiko argazkian, berriz, Haur Hezkuntzakoek izan zuten antzerkiaren une bat azaltzen da.



DANTZA EMANALDIA / Nats Nus taldeak 'Caixes' lana eskainiko du

Umeen irudimena garatzeko, jokoen eta irudien eskaintza

IKER BARANDIARAN

Abenduaren 28an, zapatua, Kataluniako Nats Nus taldeak *Caixes* izeneko dantza emanaldia egingo du. Dantza emanaldi hori, batez ere, umeei zuzenduta dago; izan ere, Nats Nus taldekoen esanetan, umeak dira euren emanaldien hartzaile onenak.

Nats Nus taldeak hamaika urte daramatza Espainiako Estatuan eta atzerrian emankizunak egiten. Taldeko partaideek diotenez, euren emanaldietan helduak eta umeak izaten dira, eta umeek beste modu baten gozaten dituzte ikuskizunak: "Umeek gure muntaien eszena batzuk ikusteko eta ulertzeko helduek baino modu askoz naturalagoa dute. Ikusten dutenaren ondorioak atara beharrean, ikusten dutenaz gozaten dute. Horregatik, gura go ditugu umeak izatea ikusle".

UMEENDAKO IKUSKIZUNA

Umeek Nats Nus taldearen ikuskizunen aurrean duten jarrera kontuan hartuta, Kataluniako taldeak umeendako *Caixes* ikuskizuna prestatu dute. Lana horren barria honako hau da: gauza txiki txiki hasita, irudimenak daukan garrantzia azpimarratzea. Dantza hori eszenatoki gainean irudikatatzeko, besteak beste, karrikazko kaxak, zabor-poltsak eta plastikozko eta paperezko botilak erabiliko dituzte.



Nats Nus taldearen *Caixes* lana oso ikusgarria da.

ARRASATE PRESS

Caixes emankizuna lau tesuinguru nagusitan banatu dute: lehenengoa, kartoizko kaxa bat. Hiri baten hango herritarrek bizi dituzten pasarteak kontatuko dituzte; bigarrena, zabor-poltsa erraldoi bat. Ur azpiko mundu bat irudikatuko dute, eta igerilariak eta arrainek elkarrekin bizi beharko dute; hirugarrena, berriz, plastikozko poltsa batek

eta bestelakoek osatzen dute. Perkusio, musika eta erritmo ikuskizuna eskainiko dute; eta, azkenekoan, neurri eta kolore askotako paperen bitartez ikusmenarekin jolastuko dira.

Nats Nus taldearen azken lanean mugimendua eta pantomima dira hizkuntza bakarrak, eta poesia eta umorea uztartu ditu, irudimena aldarrikatzeko.



AED

Aurtengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketako irabazle Igor Elortza ere etorriko da.

AEDk bertso jaialdia antolatu du Amaia Udal Antzokian

IKER BARANDIARAN

AEDk eta Santamas Komisiñuek bertso jaialdia antolatu dute domekan. Sebastian Lizasok, Maialen Lujanbiok, Iratxe Ibarrek, Igor Elortzak eta Sustrai Colinak hartuko dute parte bertso jaialdian.

AEDk eta Santamas Komisiñuek bertso jaialdia antolatu dute. Domekan izango da, Santamas Egunean, Amaia Udal Antzokian, 22:00etan. Bertso jaialdian puntutako bertsolariak arituko dira. Honako bertsolari hauek parte hartuko dute: Sebastian Lizaso azpeitiarrak, Maialen Lujanbio hernaniarrak, Iratxe Ibarra mar-

kinarrak, Igor Elortza durangarrak eta Sustrai Colina urruñarrak. Esan beharra dago Igor Elortzak Bizkaiko Bertsolari Txapelketan lehenengo saria irabazi berri duela eta Iratxe Ibarra laugarren izan dela. Maila ona izango da, hortaz, domekan Amaia Udal Antzokian bertso jaialdian.

BALKOJETATIK ANTZOKIRA

Iaz, Santamasetan, bertsolariak balkoetik balkoira aritu ziren bertsoetan, baina aurten, Amaia Udal Antzokian egingo dute bertso jaialdia, iraganean egiten zuten bezalaxe. Gai-jartzaile Egoitz Aizpuru oñatiarra arituko da. Hala, hiru euroren truke bertsoekin gozatzeko aukera polita izango da.

egizababal



Oinetakoak eta poltsak

GEOX
EL ZAPATO QUE RESPIRA

Martinelli

STONEFLY
ABSOLUTE COMFORT

Ondo pasa gabonetan!!!



ERAKUSKETA/ Ferrocarril Vasco-Navararren 75. urteurrenaren mostra jarri dute

Ibarretik pasatu zen trenaren gaineko erakusketa ipini dute Monterronen

IKER BARANDIARAN

Joan den egubakoitzean, abenduaren 13an, *Ferrocarril Vasco-Navararren 75. urteurrena* izenburuko erakusketa inauguratu zuten. Izan ere, 2002an, 25 urte bete dira Vasco-Navarro delako trenaren bide osoa inauguratu zutela, eta erakusketa prestatu dute.

Eusko Jaurlaritzako Garraio Kontseilaritzak, Eusko Trenbideak eta Azpeitiko Tren Museoko arduradunek *Ferrocarril Vasco-Navararren 75. urteurrena* izenburuko erakusketa prestatzea erabaki zuten. Arrazoa honakoa izan zen: 2002. urtean, hain zuzen ere, Vasco-Navarro trenaren bide osoa inauguratu zutenetik 25 urte bete direla. Horregatik, urteurren berezi hori ospatzeko, erakusketa prestatzen hasi ziren. Aurretik, erakusketa Gasteizen eta Kanpezun izan zen, eta orain, Arrasatera ekarri dute.

TRENAREN HISTORIA BATU DUTE

Erakusketa horretan, argazki, panel eta irudiekin, Ferrocarril Vasco-Navararren historia gainbegiratu dute. Eta ez du historia makala tren horrek: 1879an, Arabako Herran anaiei bururatu zitzaizen Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako hiriburuak lotuko zituen trenbidea egitea. Aldundiei eta udalei dirulaguntzak eskatu zizkieten, baina ez zuten finantzaketa nahikorik



AITOR URIZAR

Monterronen jarri duten erakusketan trenarekin zerikusia duten panelak, argazkiak, eta bestelakoak aurkituko dituzte.

lortu. Horregatik, merkatu britainiarrera jo zuten, eta The Anglo Vasco Navarro Company Limited konpainia sortu zuten. Trenbidea jartzeko lanak hasi eta gutxira, konpainia hark arazoak izan zituen, eta proiektu guztia Espai-

niako Estatuko Primera Division de Ferrocarriles-en eskuetan gelditu zen; 1916an, trena Eskoriaztara iritsi zen; 1918an, Bergara; eta 1923an, Elorregitik Oñatirako adarra inauguratu zuten; 1967an, San Silvestre Egunean,

elurra ari zuela, trena azkeneko pasatu zen gure ibarretik. Trenaren jabeen esanetan, ez zen errentagarria. Arrasatear batzuek iraintzat hartu dute erakusketa Arrasatera eramateko ideia, trenik ez daukagu-eta.

KULTURAPILULAK

Flamenko jaia egingo dute Bertize dantzalekuan

Gaur, egubakoitza, Bertize dantzalekuan flamenko jaia egingo dute. 22:00etan, Once Varas taldeak kontzertua eskainiko du, eta gero, DJek flamenko musika jarriko dute. Horrez gainera, opariak eta sangria ere izango dira.

Arrasate Musikaleko Bandaren kalejira eta kontzertua

Abenduaren 31n, 11:00etan, Arrasate Musikaleko Bandak kalejira egingo du. Horren ondoren, 13:00etan, kontzertua eskainiko du Amaia Udal Antzokian. Jose Ramon Elkorok egingo ditu zuzendari lanak eta herriko txistulari bandak ere parte hartuko du. Txistularien zuzendaria Juan Karlos Larreategi izango da.

Umeendako Marrazki Lehiaketa antolatu dute

Arrasateko eta Oñatiko Txuntxurunberde oinetako denek 3 eta 10 urte bitarteko umeendako marrazki eta gabonetako bola apaingarrien lehiaketa antolatu dute. Lehiaketa horretan Arrasateko eta Oñatiko umeek parte hartu ahal izango dute, eta lanak abenduaren 31 aurretik eraman beharko dituzte.

LANDALUZE
HARATEGIA URDAITEGIA
ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

Ondo pasau
Santamas jaiak!



euya

Iturriotz 21 Tel./Faxa: 943 79 03 84
ARRASATE

Ondo pasau
Santamasak

etxetresna elektrikoak

estilo guztietako lanparak zure esku

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA




Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**
ARETXABALETA



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA






Oihane Urzelai Arregi, 11 urte, Arizmendi.




Iratxe González Conde, 6 urte, Arrasate Herri Eskola.



Nerea Uriarte Muñoa, 4 urte, Aramaioko San Martin Eskola.



Deiane Flores Benítez, 5 urte, Arrasate Herri Eskola.



Maite Sánchez Martín, 11 urte, Arizmendi.




Maialen Calderón Pérez, 9 urte, Arizmendi.



Andoni Gómez Moreno, 8 urte, La Merced.



Iñaki Sanz, 8 urte, Arrasate Herri Eskola.



Maitane Ramos Fernández, 7 urte, La Merced.



Eder Garai Santa Cristina, 3 urte, Arizmendi.



Jon Altube Balanzategi, 10 urte, Arizmendi.



Hodei Letona Retolaza, 3 urte, Arizmendi.

Hara hor zelako marrazki politak bidali dizkiguten Arrasateko eta Aramaioko gaztetxoek! Mordoa jaso ditugu, eta guztiak ziren politak, baina guztiendako lekurik ez, eta horrako horiek aukeratu ditugu zuei erakusteko. Horien artean, Oihane Urzelaireren Olentzero izendatu dugu Olentzero Marrazki Lehiaketako irabazle. Eta, Andoni Gómezena izan da Txatxilipurdiko Gabonetako Postalen irabazlea. Sari banaketa Arrasateko ludotekan egin zuten, eta goian ikusten duzuen oroitzapenerako argazkia ere atera zuten. Dena dela, eskerrak eman beharrean gaude Arizmenditik jaso ditugun 1.168 marrazkiengatik, Arrasate Herri Eskolatik jaso ditugun 320engatik, La Mercedetik jaso ditugun 150engatik eta Aramaioko San Martin Eskolatik jaso ditugun 110engatik. Goiena eta Txatxilipurdi elkarteek antolatuta dute lehiaketa hori.

BEHEKODENDATIK

Bea Etxabe

BEA LENTZERIA DENDAKUE

XABIER URZELAI

Beak oin dala urte bi eta erdi zabaldu euen bere izen bera dauken dendie. Aspaldiko ametsa zan, eta Mondragueko beste denda baten lanien ibilli eta gero, negozio propioe zabalketie erabaki euén. Gauza bat euken argi: lentzerixiakin egin biher euela lan. Eta horretan dabil; gustora, gaiñera.

Amets bat?

Dendie ondo juetie.

Eta amets txar bat?

Osasunak neuri eta neure familiari bizkarra emutie.

Egin dozun azken baje?

Galiziara, udan.

Txartel horixe, zeñei?

Politikuei, Galiziako arazuen gaiñien barre egitten dabitzelako.

Eta gorrixe?

Ba, Aznarrei eta haren kua-drilliari.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Los lunes al sol / El perfume / Oskorri.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Etxeko zapatillak ala zapatak?

Kalezalie naz; hortan, zapatak.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Alde zaharra oso politte dago.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkalekuen arazue. Neuk sekulako arazuek eukitten dittut.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Zeuk gure dozune ipiñi.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Dendan bertan egunero ezagutu leike jente interesantie.

Eta ezagutu nahiko zeunkena?

George Clooney-edo.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Ez dot balixo horretarako. Segituen harrapauko ninddukie.



X.U.

“Neuk gurago dot barruko erroa komo due, baiñe probokatibue be asko saltzen da”

Bizio bat?

Leidutie.

Mendi bat?

Kurtzebarri.

Ze dauketzu sobran?

Fakturak.

Eta faltan?

Denpora librie.

Telebisiñoko programa bat?

Bexamela gustetan jat.

Eta irratikue?

Programa bat baino gehixago, Arrasate Irratia entzuten dot.

Zertan gastauko zeunke dirue gustora?

Dendarako gauzak erosten.

Lentzerixa komo due ala probokatibue gurago?

Komo due gurago.

“Emakume batei ligero bat eta gizonetzko batei tanga bat erregalauko neuskie”

Baiñe ze saltzen da gehixago?

Bixek. Fetxen arabera. Gabonetan eta Maiteminduen Egunien probokatibue saltzen da gehixago.

Tangak modan ei daguz.

Bai. Kuleruek baiño gehixago saltzen die. Mutilletan ondiokan ez die askorik saltzen.

Hotz honekin, baiñe, leotarduekin edarto.

(Barriek). Ez, ez, ez. Leotardorik ez. Hotzari aurre egitteko kalefakziñuek daguz.

Gabonetan ze erregalauko zeunke?

Erregalue zeñendako dan ikusi biher da: emakume batei ligero bat eta gizonetzko batei tanga bat erregalauko neuskie.

NIREBIDAIAHURA/ Iban Garai

Kantabria, Asturias, Galizia, Portugal, EH / 2002an, udan

Iban, Muxi lagunendako, kirolzale amorratua da. Ibanen zaletasunetako bat surfa egitea da, eta surfa egiteko asmoz abiatu ziren Iban eta beste bi lagun kostaldera. Furgoneta hartu, eta Kantabrian zuten. Lehenengo bi egunak Somon egin zituzten. Surfa egiteko egun bat izan zuten ona, baina bestea ez zuten askorik aprobetxatu. Somotik Liencreserako bidea hartu zuten, eta beste bi egun egin zituzten han. Bidaia osoko olaturik onenak izan zituzten Kantabria aldean, baina olatuez gain, hango parajeez gozatze-ko aukera ere izan zuten: “Euskal Herriko kostaldea oso polita da, baina Kantabriako kostaldea ere ez da motz geratzen, izugarri gustatu zitzaidan”.




“Surfa egiteko ez da uda aproposa izan, olatu gutxi izan da”

Kantabrietik, kostaldea jarraituta, Asturiasera iritsi ziren, eta egun bi egin zituzten Asturiasen. Itsasoa bare-bare zegoenez, Galizia aldera jotzea erabaki zuten. Galiziako kostaldea goitik behera ezagutu zuten. Bost egun izan ziren Galizian. Egun guztietan ezin izan zuten surfik egin, baina izandako egunak bikain aprobetxatu zituzten: “Olatuak zeudenean 6-7 orduan izaten ginen uretan. Surfa egiteko aukerarik ez zenean, inguruak ezagutzeko aprobetxatzen genuen”. Surfa egiteko lege batzuk errespetatu behar dira: “Oro har, harreman ona izan genuen Galiziako surflariekin, baina gu kanpotarrak ginen, eta hango surflariek lehen-tasuna zeukaten. Haiiek utzitako olatuak bakarrik hartzen genituen”. Doñinos, Muxia, Finisterre... Galizian ere itsasoak ez zuen askorik laguntzen, eta Portugalera jaitsi ziren: “Penichen Supertubos izeneko hondartzara joan ginen, baina itsasoa baino gehiago, lakua zirudien, ez zegoen olaturik”. Portugalen ere ez zuten surfa egiteko aukera handirik izan, eta Kantabria aldera itzultzea erabaki zuten. Kantabrianrek esan zieten surfa egiteko uda txarra zela, eta eurak ere konturatuta zeuden horretaz. Bakioko hondartzan amaitu zuten bidaia, penintsulako ipar-mendebaleko kostalde ondo ezagututa.

XABIER URZELAI



Arrasatearrek graffitiak egiteko astia ere izan zuten Galizian.



ARIANE

Emakumeendako eta gizonendako barruko jantziak

Olentzerok barrutik dotore jantzi zaitzala

Erdiko kalea 14 ARRASATE Tel.: 943 792 733



Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



Zure bidalketa zerbitzua Europa osora iristen da.



Jakin, badakizu, konfiantzaz utz ditzakezula gure esku Espainia eta Portugalera bidalketak. Nahi al duzu zerbitzu hau bera Europa osorako?

Euro Expresekin dagoeneko baduzu: izan ere, paketeak garraiatzeko eta banatzeko Europako merkatu bakoitzeko liderrek osaturiko enpresa-sarea baita. Gisa horretan, zure bidalketa doan lekura doala ere, inguruak ongien ezagutzen dituztenek egingo dizute zerbitzua.

Guipuzcoana Euro Expresekook kalitate/prezio erlazio bikainaz garraiatzen ditugu paketeak eta paletak. Hortaz, zergatik ez duzu gure esku uzten Europara zuzenduko duzun hurrengo bidalketa?

www.guipuzcoana.com

Harremanetarako: 943 763 642 - San Juan Erreka 33, E-20570 Bergara - bergara@guipuzcoana.com

Ezagutza, bertakoa. Esperientzia, Europa-mailakoa.

 **GUIPUZCOANA**
EURO EXPRESS

Santama girooriko

ESKIÑA taberna

Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20



Itzala

Iturriotz kalea, 19
943 77 30 29

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



BASATI

TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TLF. 943 711762

OKORETEGI

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 62

betan, jai onenena!

CAFÉ

**IA
M
AI**

K O M P U T E Z I M O K A L E A 1 4

943 71 29 95 - 20500 ARRASATE

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE

Giro desberdin bat!!



Jai Zale Taberna ★

Olarte 37, Behea 20500 Arrasate Tel.: 943 796 792

**RUMBA
TABERNA**


Iturriotz kalea
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00



LORA

Ondo pasau
Santamasak!!!

**BIONA
TABERNA**



**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

Eguberri On!

DENOK



Opari Bereziak:

9,99

eurolik aurrera

Hurkezpen Esklusiboak



E, TXO!

GABONETAKOPARKEA/ TXIKILANDIA

Gabonetako Txikilandia parke erraldoiak berritasun handiak ekarriko ditu

IKER BARANDIARAN

Txatxilipurdi elkarteak Gabonetako Txikilandia parke erraldoia antolatu du. Hala, urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean, Musakolako kiroldegia ibarreko umeendako eta gaztexoendako jolasleku erraldoi bilakatuko dute. Hamahirugarren aldia du.

Urte osoan egindako lanek laster izango dute emaitza. Urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean, Musakolako kiroldegian Gabonetako Txikilandia parke erraldoia jarriko dute. Horretarako prestakuntza lan ugari egin behar izan dituzte. Eta aurretik egindako lan guztiaz gain, lau egun horietan, besteak beste, Txatxilipurdi elkarte hirurogei begiralek Musakolara joango diren ume eta gaztexoak zaindu beharko dituzte, baita haiei lagundu ere.

'TXATXIBUS'-EAN MUSAKOLARA

Txikilandiaren irudi bereizgarria *Txatxibusa* da, eta aurren ez du kalerik egingo. Eta gurasoek eta txikienek eskertuko dute, jakina, autobus horrek emandako zerbitzua. Gabonetako Txikilandia parke erraldoiak iraungo duen lau egunetan, autobus deigarri horrek Arrasateko auzo guztietako eta Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Aramaioko ume eta gaztexoak Musakolako kiroldegiraino eramango ditu, goizez eta arratsaldez.

BERRITASUNAK ETA EZUSTEKOAK

Esan bezala, Txikilandia urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean egongo da zabalik, eta honako ordutegia izango du: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Urtarrilaren 2tik 4ra, eguneko sarrera 4,2 euro kostatzen da eta urtarrilaren 5ean, berriz, 3 euro ordaindu beharko dira. Lau egunerako bonoa, oster, hamaika euro kostatzen da, eta dagoneko salgai dituzue, Txatxilipurdin. Helduek sarrera doan izango dute.

Txikilandiak hainbat aukera



TXATXILIPURDI

Gabonetako Txikilandia parkea zabalik egongo den egunetan ume asko pasatuko dira Musakolako kiroldegitik.

Txikilandian gune eta jolas berri gehiago izango dira, eta egunero patinete bat zozkatuko dute

eskainiko ditu: puzgarriak, lantegiak, Karaokea, Txiki-txokoa, igérilekuko jolasak, Bilin-bolonka gunea -0 eta 2 urte bitarteko umeendako- eta Gurasoen Txokoa. Berritasunen artean, Izar Berrien Txokoa -Operación Triunfo-ren antza izango duena- eta Digital Gunea -argazkiak egiteko gunea- izango dira.

Txikilandiak 13. aldia beteko du, eta egunero patinete bat zozkatuko dute. Opari hori eskuratzeko, Musakolako kiroldegiko postontzi batzuetan galdera baten erantzuna sartu beharko dute.



TXATXILIPURDI

Txatxilipurdik jostailu eta lantegi gehiago jarriko ditu Txikilandian.

ABENDUAREN 31N, TXATXILIPURDIK EZUSTEAK
Hilaren 31rako, Gabonetako Txikilandia parkearen aurkezpenarekin lotuta, Txatxilipurdi elkarteak ibarreko umeendako ezustekoak prestatu ditu. Egun horretan, abenduaren 31n, 18:00etan Seber Altuben egoteko gonbita egiten die umei. 17:00ak aldera, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Aramaioko erdialdetik ere igaroko dira. Horregatik, Txatxilipurdik gonbita egiten die herri horietako umei ere adi-adi egon daitezen.

'LARUNBLAI'-KO IRTEERA GASTEIZKO TXIKIPARKERA

Joan den zapatuan, abenduaren 14an, *Larunblai* lelopean Txatxilipurdi elkarteak Gasteizko Txikiparkera irteera antolatu zuen. Ederto igaro zuten eguna. Ea laster argazkiren bat ekartzen diguten!

GAZTE TXOKOETATIK GASTEIZERA PATINATZERA

Joan den zapatuan, abenduaren 14an, Txatxilipurdiko hiru gazte txokoetatik Gasteizera patinatzerara joan ziren.

DUINA PLATAFORMAREN AZTERKETA

Duina Plataformak hainbat gazte mugimendu batzen ditu. Martxoan, plataforma horrek helburu bat zehaztu zuen: euskal gazteen eta lanbaldintzen gaineko azterketa egitea, hain zuzen. Eta joan den astelehenean egindako prentsaurrekoan azaldu zuten, azterketa horren emaitzak liburu baten batu, eta urtarrilean argitaratuko dute. Liburua argitara eman aurretik, baina, hainbat gizarte eta politika eragileri emaitzak aurkeztuko dizkiete. Hortaz, horri itxaron beharko diozue.

BUART
Loradenda

Loreek apain ditzatela zure Gabonak



ZAHARREN ETXETIK

Musakolako Karta
Txapelketako sariketa

IKER BARANDIARAN

Musakolako zaharren elkarteko abenduko Karta Txapelketa dagoeneko bukatu da. Aurreko aste osoan briska, mus eta tute jokoan ibili ondoren, abenduaren 12an, txapelketaren sari banaketa egin zuten.

Musakola zaharren elkartean karta txapelketa bi antolatzen dituzte urtero: bata, San Isidro jaiak baino pixka bat lehenago; eta bestea, abenduan.

Txapelketa horretan berrogeita hamasei lagunek eman zuten izena, eta hiru sailetan banatu zuten: briska, tutea eta musa, hain zuzen ere. Briskako partidak astelehenean (hilak 9) jokatu zituzten, eta zortzi bikote –denak emakumeak– ibili ziren jokoan. Hala, Margari Arexola-leiba eta Conce Lorenzo izan ziren irabazleak; bigarren saria, berriz, Miren Urizarrek eta Doroti Larri-nagak eskuratu zuten.

Martitzenean (hilak 10), bestalde, hamalau bikotek –denak gizonak– mus partidak jokatu zituzten. Lehen saria Elias Urangak eta Felix Urangak eskuratu

zuten; eta bigarren saria, Mariano Urrutiak eta Mario Najerak.

Eta eguaztenean (hilak 11), tute txapelketa izan zen. Juan Jose Gorosabelek eta Anton Madinabeitiak eskuratu zuten txapela; bigarren saria, berriz, Francisco Callejak eta Jose Bravok.

EGUENEAN, FINALAK JOKATU ZITUZTEN

Aste osoan jokoan ibili ondoren, eguenean (hilak 12), arratsaldean, tute, mus eta briskako txapelketako finalak jokatu zituzten. Giro ona izan zen, eta ikusmina piztu zuten finalek. Jazotako pasarteetan artean, bata nabarmen genezake: museko txapelketako bikote irabazleak, Elias Urangak eta Felix Urangak osatutakoa, lehiaketan azkeneko orduan izena eman zuten. Garaile zirela ikusi zutenean, batek baino gehiagok barre egin zuten. Edozelan ere, erretiraturen batek bikote horrek azkeneko unean izena eman izana beste parte-hartzaileak *despistatzeko* estrategia ote zen galdetu zuten.

Txapelketako sari banaketa egin ondoren, parte-hartzaileek eta antolatzaileek askari goxoa izan zuten Musakolako zaharren elkartean.



Irudian, Briska Txapelketako bikote irabazlea: Margari Arexola-leiba eta Conce Lorenzo.

AITOR URIZAR

75 urtetik gorakoei omenaldia egingo diete

Gaur, egubakoitza, Musakolako zaharren elkarteak omenaldi berezia egingo die 75 urte baino gehiago dituzten elkarteko bazkideei. Hala, artikulu hau idazten ari ginela, hogeita hamazortzi lagunek emana zuten izena, baina baliteke gaur jende gehiago omentzea. Ekitaldia 17:00etan

hasiko dute, eta han batzen diren guztiei txokolatea eta txurroak emango dizkiete. Gero, erretiratu bakoitzari opari bana emango diote. Emakume zaharrena Agustina González da (86 urte) eta gizon zaharrena, berriz, Lazaro Ugartetxea (87 urte).




Otalora z/g, ARRASATE
943 79 82 68



Irala 5, BERGARA
943 76 27 16



Barrenkalea 35, BERGARA
943 76 29 46



ZUTARRI S.L.

Eraikuntza enpresa

Zuekin lanean
kalitate eta konfiantza osoz.

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Deitu konpromisorik gabe: Tel.: 639 77 86 90


Zerkaosteta, 17 · 20500 ARRASATE



***Euskararen bidea ez
da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz
argituko da
noizbait bere
etorkizuna.
Hizkuntza dugu Herriak
duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna***

Arimazuri plaza, 2
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

Arrasateko Udal Euskaltegia



Jon Ander Arrizabalaga • 10 urte

Oporrak dira eta
alaitu den-denak
alde batera utzi
arazo sakonak
Urte berria dator
berriz zorionak
eta guztiok ondo
pasatu gabonak!

4. maila • 9-10 urte



Lierni Etxebarria • 6 urte



C8
Berria



Etor zaitez:

CHAPIME TAILERRAK SCL Citroën-eko Kontzesionario Ofiziala
San Andres auzoa 5 Tel.: 943 79 45 22. ARRASATE.



Santamas jaietan hainbat ekitaldi antolatu dituzte Arrasateko erretiratuen elkarteek

IKER BARANDIARAN

Gabon partean, neguaren atarian, herriko erretiratuek geroago eta ekitaldi gehiago antolatzen dituzte. Hotza egiten duela-eta, lan eta lan ibiltzen dira erretiratuen elkarteetan. Gaur eta bihar, txistorra-janak eta bestelakoak izango dituzte.

Orain dela gutxi, Santa Luzia Eguneko ospakizun ekitaldiak bukatu dira. Arrasatear askok askari, bazkari, afari eta dantzaldiak izan dituzte, eta horietako batzuk erretiratuen elkarteetan egin dituzte. Negu partean erretiratuak lanerako gogoarekin egoten dira, eta dagoeneko hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Erretiratuek oso gustuko dute Santamas Eguna; base-ri kutsua daukan tradiziozko jai hori oso presente daukate, eta asko domekan azoka ikustera joango dira. Hala ere, erretiratu asko auzo-etan bizi direnez eta Santamasak auzoan ospatu ahal izan ditzaten, zenbait elkarte txistorra-janak antolatu dituzte.

Hala, Musakolako zaharren elkarteetan, gaur, egubakoitza, 75 urte baino gehiago dituzten adin-

duak omenduko dituzte, eta horren ondoren, txokolate-jana izango dute. Hala ere, domekan ez dute kalerik egingo: Santamas Egunean, goizez eta arratsaldez, txistorra-jana izango dute Musakolako elkarteetan.

BILBORA TXANGOA

Bestalde, gaur, egubakoitza, 17:30ean, Uribarriko zaharren elkarteak bazkide guztiei txistorra emango die. Eta bihar, zapatua, ostera, Uribarrikoek Bilbora joko dute, Bilboko Santo Tomas Egunera, hain zuzen ere. 09:00etan Arrasatetik irten eta egun-pasa egingo dute Bilbon. Horiek bai, aurtan, Santamas Egun bi izango dituzte: Bilbokoa, zapatuan, eta Arrasatekoa, domekan.





Azkenik, Toki Argi eta Abaroa elkarteek ere txistorra emango dute asteburuan. Baina Santamas Egunean -domekan- eman beharrean, bezperan -zapatuan- emango dute. Horrez gain, bai Abaroa elkarteak baita Toki Argi ere Gabonetako otarrak prestatu dituzte, eta otar horien zozketa abenduaren 22an, domekan, egingo dute. Adi, hortaz, zozketa horietarako txartelak daukazuena. Ondo pasatu Santamasak eta Gabon jaiak!



Etxe eskotan moduan, herriko erretiratuen elkarteetan ere izango da zer jan eta zer edan Santamas jaietan.

AITOR URIZAR

DISCOPOLIS



Juan Carlos Gerra, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 77 02 13



ARRASATE
Maikel Ropero
Abenduaren 31an, 12 urte. Zorionak! Aitaren eta amaren partetik.



ARAMAIO
Amaïur Belategi
Abenduaren 18an, 3 urte. Zorionak! Etxekoak eta lagunak.



ARRASATE
Ander Romero
Abenduaren 23an, 13 urte. Zorionak! Etxekoaren partetik.



ARRASATE
Larraitx Kortabarría
Abenduaren 12an, urtebetetzea. 28 urte. Zorionak! Koadrilakoaren partetik.



ARRASATE
Roberto Horrillo
Abenduaren 20an, 18 urte. Zorionak! Gurasoen eta anaiaren partetik.



ARRASATE
Mireia Cabrera
Abenduaren 31n, 4 urte. Zorionak! Etxekoak, Ane eta Nagore.



ARRASATE
Iker Barandiaran
Abenduaren 14an, urtebetetzea. Zorionak Txitxo Potter! Segi tximekin!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.

Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.

Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Senior mailan zenbat eskubaloi talde daude Arrasaten?
Eta zein izen dute talde horiek?

Super BM IFA

Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA:

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **EGUAZTEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

Delfin langostinoak
kiloko 21/30

10,37€ 1.735 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

LEIRE RODRIGUEZ endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Leire!

Galderen erantzun zuzenak:

0,30 euro. 24 orduan dago parkinga zabalik.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasateko azoka nagusia,
Santamas jaietan

ION ANDER RAMOS

Arrasateko nagusiek gogoan izango dute Santamasak iritsi eta salerosleek postuak jartzen zituztenean herritarrek zernolako irrika sentitzen zuten. Esaten dutenez, herriko biztanleak Santamasen zain egoten ziren arropa eta zapa-tak erosteko. Animalien feriak ere garrantzi handia zeukan, inguruetako baserriar guztiak elkartzen ziren-eta ferian.

1727an, Villafrancako Juntan erabaki zuten herrietatik kanpo egiten ziren jaiak herrian bertan egitea. Santamasetako feria San Balerion egiten zuten, eta lehenago aipatutako erabakiaren ondorioz, Santamas feria Arrasatera ekarri zuten. 1926ra arte, beheko portalean ospatu zituzten Santamasak. Urte hartan, azoka berria egin zuten, eta hurrengo urteetan, azoka berrian egin zuten Santamasetako ganadu feria. Santamasetako feria Valladolideko Pedro erregeak baimendu zuen, erregalia bereziarekin, 1351ko irailaren 20an. Arrasateko Udalean

*Santamasetako
bigarren egunean,
izen handiko
erromeria egiten
zuten herrian*


Santamasetako jaien ospakizuna baimentzen zuen akordio bat dago, 1544koa. Sasoi hartan, Santamasak hiru egunean ospatzen zituzten: abenduaren 21ean, 22an eta 23an. Bigarren egunean izen handiko erromeria egiten zuten, eta, urteen poderioz, ohitura hori desagertuz joan da.

Erromeria hartatik akordeoilari eta pandero jotzaile asko pasatu ziren. Lehenengo, Garibai kalean egiten zuten erromeria, eta geroago, Biteriko eskolaren parean. Desagertu baino lehen, Biteriko lorategiak egon ziren lekuan egiten zuten, filantropoaren monumentuaren inguruan, hain zuzen. Azken urteotan, abenduaren 22an, arrakasta handiko fruta, barazki eta animalia lehiaketak izaten dira.



Hauxe da aurtengo Santamas jaietako kartela.

XABIER URZELAI



Elgeta-Piel

Domingo Iturbe 8

ELGETA

943 76 81 12

*Gabon jai
zoriontsuak
opa
dizkizuegu*


Martitzenetik zapatura:

17:00-20:00,

Domekak:

11:00-13:30.

Astelehenetan itxita.



NECTAR



Kosmetika naturaleko dendak



*Era guztietako
otar eta opariak*

Konponbide kosmetikoak denerako eta denondako

Zure zain gaude!

**BEZERO-TXARTELA ETA
KATALOGO OROKORRA, DOAN**



Kosmetika naturala

*Animaliekin
esperimentatzearen kontrakoak*

Doan!



Bezere-txartela
eta katalogo
orokorra, DOAN

Bisita gaitzazu, OTALORA, 36

TEL.: 943 79 99 38 - 20500 ARRASATE

Santamasak

ARRASATE / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 21a / SANTAMAS JAIEN GAINEAN ZENBAKI BEREZIA

Belaunaldiz belaunaldi piztuta dirauen tradizioa

Badatoz herriko jai garrantzitsuenetakoak: Santamasak. Aurten ere baseritar jantziko da Arrasate, eta, iraganean bezala, herria azoka erraldoi bilakatuko da. Baserriko jakiak eta bestelakoak erosteko aukera egongo da, eta taloak eta txistorra izango dira nagusi. Hala, euskal girorik eta parrandarik ez da falta izango.



AMAGARA

Gabon Zoriontsuak

Idea guztiak agortu zaizkizu eta ez dakizu zer opari egin Gabonetan?

EDERTASUNA ETA ONGIZATEA OPARI ITZAZU

Zatoz! Amagara da zure konfiantzazko estetika zentroa

Erdiko kale 54. Tel.: 943 79 09 09

Baserrietako jakien azoka erraldoia, Santamas jaiaren benetako arima

Santamas jaiak baserriarrak kalera jaisten ziren sasoiak datoz: neguari begira, baserriko produktuak kalera jaitsi eta saldu egiten zituzten sasoiak. Bide batez, kaletarrek harremanetan jarri, eta egun hori ondo pasatzen zuten. Egun ere saltoki ugari izaten dira.

Santamasak ez lirateke Santamasak izango baserrietako produktuen azokarik ez balego. Aurtengo Santamas Egunean, domekan, ehun saltoki baino gehiago jarriko dituzte ibarreko, Euskal Herriko, Kataluniako eta Frantziako baserriarrek-eta. Hala, 09:30ean, Azoka plaza, Biteri aparkalekua, Biteri etorbidea eta Seber Altube plaza saltokiz jositako aurkituko ditugu.

Biteri aparkalekuan egongo da saltsa handiena; izan ere, hirurogei bat saltoki jarriko dituzte han. Euskal Herriko Hegoalde-tik, Errioxatik eta beste leku batzuetatik etorritako hirurogei bat lagun batuko dira eta, besteak beste, lore sikuak, gazta, ogia, euskal pastela, sagardoa, txakolina, ardoa, patxarana eta kontserbak salduko dituzte. Eta Harreman gobernuz kanpoko erakundeak ere izango du saltokia.

Bestalde, Azoka plazan ere egongo da zer ikusi, jan eta erosi;

izan ere, Errioxatik, Gironatik, Arabatik, Bizkaitik eta Frantziatik etorritako hogeitabat saltzailek

Biteri aparkalekuan, Azoka plazan, Biteri etorbidean eta Seber Altuben izango dira saltoki gehienak



ANDER GILLENEA

Santamas Egunean produktu naturalak dastatzeko eta erosteko aukera izaten da.

loreak, ardoa, kontserbak, ogia eta gazta salduko dituzte, besteak beste, Azoka plazan.

Seber Altuben, berriz, ibarreko eta inguruetakoa hemeretzi baserriarrek frutak, barazkiak eta ogia izango dituzte salgai. Eta Biteri etorbidean hegaztien erakusketa eta salmenta egingo dute.

Horiez gainera, herriko hainbat talde eta elkartek sagardoa, taloak eta bestelakoak dastatzeko txosnak jarriko dituzte herriko zenbait lekutan.

EZTI, GAZTA, FRUTA ETABARAZKI LEHIAKETAK



ARTXIBOA

Saltzeaz gain, lehiaketa ere egingo dute

Urtero, barazki, fruta, gazta eta ezti sorta onenak saritzen dituzte Santamas jaietan, baserrietan horrelako lanak hartzea saritzeko asmoz. Hala, 11:00etan, Seber Altuben, barazki eta fruta onenen sari banaketa egingo dute. Barazki eta fruta onenari 210 euro emango dizkiote; bigarrenari, osterara, 150 euro. Barazkietan sari ekologikoa ere emango dute: 150 euro. Bestalde, ogi saltoki onenari eta lore saltzaileei urte batzuetan accessita eman izan diete.

12:00etan, Azoka plazan, ezti eta gazta onenak sarituko dituzte. Gazta onenari 210 euro emango dizkiote eta bigarrenari, 150 euro. Ezti onenari, 150 euro; bigarrenari, 120 euro; eta hirugarrenari, 90 euro. Hortaz, zortea izan dezazuela! //B.

Negu honetan zure oinak janzteko behar duzun guztia....

Beatriz
Oinetakoak

Erdiko kalea 11 • ARRASATE • Tel.: 943 79 14 33



NEREA



Erdiko kalea, 28
ARRASATE
Tel.: 943 79 13 43

*Gabon
zoriotsuak
izan
ditzazuela!*



TRUK

EUSKARAZ JOLAS ETA IKASI

AITOR IKASTOLAN



UMEENTZAKO ORDENAGAILUA
EUSKARAZ • INGELESEZ • GAZTELANIAZ

- 78 jarduera euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez
- Hiztegia, jolasak, marrazkiak, grafikoak,...
- Pantaila, teklatura eta benetazko sagua
- Pedagogoa eta hezitzaile adituek garatua.

6-9 URTE
59,90 €

AITOR SORTZAILE



- Idazkeraren eta irakurketaren sortzaile
- Kultura eta irakurketa
- Edukirik handiena ahozko euskaraz eta gaztelaniaz
- Sagu profesionala, benetazko teklatura,...
- 55 jarduera euskaraz eta gaztelaniaz
- Jokoak eta orduak
- Musika eta marrazketa

4,5
6,5 URTE
59,90 €

EUSKARAZ JOLAS ETA IKASI



DEI IEZAGUZU ETA
EGUN GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN

3,67 €
BIDALKETA
GASTUAK

dertu!

TRUK

902 45 12 12

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA



**Gaurko jolasa, biharko
jarduna.**

**Ez baldintzatu seme-alaben
jokoak neska edo mutila
izateagatik.**

**Hez itzazu berdintasunean,
aukeratu jostailuak sexuari
begiratu barik, euren
etorkizuna jokoan dago-eta.**

**Badaude segurtasuna,
independentzia, logika,
elkartasuna, maitasuna,
lankidetz... garatzen
dituzten jostailuak.**



ARRASATEKO UDALA

■ Emakume Saila

Debagoieneko baserrietako animaliak Santamasetako azokan

Santamasetako azokan ganadua eta hegaztiak protagonista izaten dira urtero. Ibarreko baserrietatik urtero jaisten dituzte Debagoieneko ganadua eta hegazti ikusgarriak. Gehienok ikusle soilak izaten gara, baina azokara ganadua erostera joango denik ere izango da.

Santamas jaiek ez lukete zentzurik izango ganadu azokarik egingo ez balute, eta aurten ere baserrietako animaliek ez dute kalerik egingo. Hala, domekan, goizeko hamarretan, Debagoieneko ganadu azoka izango da ikusgai Arrasaten.

Joan den urtean, ganadu azoka lekuz aldatu zuten; izan ere, animaliak Garibai etorbidean egon ziren. Eta aurten ere, iaz bezala, Garibai etorbidean topatuko dituzue azokako animaliak. Azoka, berez, joan den urtekoaren oso antzerakoa izango da; izan ere, iazko ganadu kopurua %90 izango da aurtengo Santamasetako ganadu azokan.

Domekan, besteak beste, animalia hauek ikusi ahal izango dituzue: ahariak, ahuntzak, moxalak, zaldi bi, hiru asto, hamabi ardi eta hogeita bost behi inguru izango dira, Debagoieneko hainbat baserrietatik ekarrita.

Iaz, hogeita hamar behi inguru izan ziren, eta baliteke aurten behi gutxiago izatea. Gainontzean, joan den urteko animalia guztiak izango dira aurten ere ikusgai. Argi dago, hortaz, baserrietako animaliak ikusi gura dituenak domekan aukera paregabea izango duela; bai ganadua

ikusteko, baita erosketaren bat edo beste egiteko ere.

HEGAZTIK IKUSGAI

Esan bezala, Ganadu azoka Garibai etorbidean izango da, eta, bestalde, hegaztien erakusketa ikusteko ere ez da oso urrun joan behariko, Biteri etorbidera, hain zuzen ere. Hegaztien erakuske-

ta ere goizeko hamarretan hasiko da, eta bost postu izango dira. Hegazti erakusketan 75 hegazti inguru egotea espero dute antolatzaileek. Joan den urtean, lehenengo aldiz, euskal oiloak izan ziren ikusgai, eta badirudi aurten ez dela horrelakorik izango. Edozelan ere, salbuespen bakarra izango da.


Aurtengo ganadu azoka joan den urtekoaren oso antzerakoa izango da

Hegazti erakusketan bost postu ipiniko dituzte, eta 75 hegazti inguru izango dira ikusgai



Hogeita bost behi inguru izango dira ganadu azokan.

HEGAZTI HARRAPARIAK




ARRASATE PRESS

Hegazti harrapariak Laubide plazan

Azken urteotan, hegazti harrapariak ikusmin handia piztu dute. Herritarrek erantzun paregabea eman izan diote Laubide plazan arranoekin eta beste hegazti harrapari batzuekin antolatzen duten ikuskizunari. Badirudi ikuskizun hori jendeak biziki eskertzen duela, eta aurten ere Santamasetako jaietako antolatzaileek ez dute duda izpirik izan.

Joan den urtean bezala, zapelatzak, arranoak, belatzak eta hudoak ikusteko aukera izango da, besteak beste. Urretxutik ekarriko dituzten hegazti horiek Lau Bide plazan izango dira domekan, goizeko hamarretan.

Hala, domeka goizean Laubide plazara hurreratuko direnek harraparitar horien ikuskizunarekin gozatu ahal izango dute. Ikusteko modukoa izaten da hegaztien ikusleen buruen gainetik zelan hegan egiten duten, eta ikusleek ikuskizunean parte hartzeko aukera ere izango dute. /X.U.

 **Gambrinus**
garagardotegia

- Menua:
- bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE



ARRASATE
HOTELA

Biteri 1
Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

ORTO + LAGUN
ORTO PEDIA

Zugan pentsatuz, laguntzeko prest

- Plantila bereziak, behar bakoitzak berea.
- Aluminiozko gurpil aukerak; arinak, tolesgarriak eta elektrikoak.
- Ohe artikulatuak, koltxoi bereziak.
- Lanerako oinetakoak.

Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

sustatu.com

interneteko profesional euskaldunendako albistegia

<http://www.sustatu.com>



Kantuan, dantzan eta parrandan ibiltzeko aukera ugari izango da Santamasetan

UBANE MADERA

Santamasetan kaleko jai giroa pizteko langile asko kalerik kale ibiliko da; bereziki, musikariak eta dantzariak. Batzuk herrikoak dira, eta beste batzuk kanpoak; edozelan ere, guztiak bat egingo dute herriko festa giroarekin.

Betiko moduan, bezperan hasiko da jaia. 19:00etan, etxafuegoak botako dituzte; eta ordu berean, erraldoi eta kilikien konpartsa kalera irtengo da.

Eta 19:00etan ere aurkeztuko dute Santamasetako protagonista: *Txolin* txerria. Elezgarai base-rian izan da orain arte, epeletan eta txukun-txukun, egun handia noiz izango zain. 280 kilo eder ditu eta, Elezgaraiok kontatu digutenez, sudurmotza da.

Horrela, bada, *Txolin* txerria aurkeztu eta berehala hasiko dira txerria zozketatzeko txartelak saltzen.

19:30ean, Incansables txarangak hartuko du lekukoa, eta kalerik kale ibiliko da jendea dantzan ipintzen. Eta dantza egiten segitzeko gogoia duenarendako, 23:00etan, dantzaldia izango da, herriko plazan, Izotz taldearekin. Hortik aurrera, norberaren gogoen eta nahien arabera luzatuko da Santamas bezpera, askorendako goizeko ordu txikiak arte.

EGUNA BERA

Hori bai, hurrengo egunean, goizean goiz hasiko da jaia kalean. Gaitariak eta txistulariak izango dira lehenak, diana jo eta jendea ohetik ateratzeko; 09:30ean ekingo diote jardunari. Musikariek ibiltzen diren dantzariak apur bat geroago irtengo dira: 11:30ean. Arrasateko txistulariek, gaitariak, Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeek, trikitalariak, Iturengo Ttunturruek eta Incansables txarangak, guztiak batera kalejira egingo dute. Gero, ia talde guztiak herriko plazara joango dira, nork bere taldearen dantzen edo musikaren erakustaldia egitera. 12:30ean, berriz, Lore Gazteak dantza taldearen



Santamas bezperan aurkeztuko dute 'Txolin' txerria, 19:00etan, herriko plazan

11:30ean, kalejira egingo dute musikariek eta dantzariak, guztiak batera

Goizeko hamarretan, txotx egingo dute herriko plazan; horrela hasiko da Txotx Jaia



Taloek, txorizok eta herri bazkariak sekulako arrakasta izaten dute.

txanda izango da; 13:00etan, Arrasateko trikitalariak arituko dira; ordu erdi geroago, 13:30ean, Arrostaitz dantza taldearen txanda izango da; eta 14:00etan, bes-

talde, Txerri dantza eta Larrain dantza egingo dituzte plazan. Horrela bukatuko dira goizeko saioak. Baina arratsaldean ere izango da zer egin Arrasaten.

HERRI BAZKARIA

Aurten ere ez du kalerik egingo azken urteotan gero eta arrakasta handiagoa duen ekitaldia: herri bazkaria. 14:30ean izango da, azken urteotan moduan, Uarkape Udaltzalekuan. Jende mordoa joan ohi da bazkari horretara; hori dela eta, jende gehiago joan ahal izateko lekua gordetzen ahaleginduko direla esan digute antolatzaileek. Dena dela, azken urteotan moduan, seguru asko, aurten ere laster asko bukatuko dira herri bazkarirako txartelak, eta Uarkape bete-beteta izango da. Gainera, etxeko txikiak ere joan ahal dira; izan ere, bazkalostean, 15:30ean hasita, txikiendako antolatutako lantegiak zain izango dira.

Santamas Egunarekin bukatzeko dantzaldia izango da Luhartz taldearekin, herriko plazan, 23:00etan. Eta gauerdian, puntu-puntu zozketatuko dute Santamasetako gure protagonista: *Txolin* txerria. Dena dela, legeak hala aginduta, irabazleak ez du txerria bera eramango etxera, baizik eta 500 euroko diru-saria. Normalean ere horrela egin izan dute, baina aurten, derrigorrezkoa da.

TXOTX JAIA ETA TALOAK

Eta aurten ere izango da Txotx Jaia plazan. 10:00etan egingo dute txotx, plazako arkupean egongo diren kupelekin, betiko moduan. Santamasetako edalontzia erosi, eta hortik aurrera gura den sagardo goxo-goxo guztia edan ahal izango da. 600 litro sagardo gerutu dituzte horretarako Santamas Komisiñokuek.

Sagardoari laguntzeko, jakina, ezinbestekoak dira taloa eta txorizoa. Oraingo honetan, Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldea ibiliko da talogintzan; eta bizkaitar erara egindako taloak ere probatu ahal izango ditugu, talde bizkaitar bat ere ibiliko da eta talogintzan. Postu biak herriko plazan egongo dira, sagardo kupelen pare-parean, hain justu ere; horrela, taloak eta txorizok sortzen duten egarri asetzearrazagoa izango da sagardo goxoaren laguntzarekin.


Yoar

Oinetakoak eta poltsak



LOOKY
KOLLFLEX
MASCARÓ
WONDERS
HOMERS
PATRICIA
PIELSA
ORIGINAL
CLARKS
24 HRS.
YANKO
N.O.D.
NATURE
CATS
PERCHI
EMPORIO

ARRASATE BITERI ETORBIDEA, 13 TEL. 943 79 21 71 BERGARA BARRENKALE, 9 TEL. 943 76 22 86




MARGA
jantzi denda

*Ondo pasa
Gabon jaiak!*

Iturriotz 21 • ARRASATE
Tel.: 943 71 17 40

San Pedro 20 • BERGARA
Tel.: 943 76 05 37

1 Euskal selekzioaren cd-rom jokoak



**eskatu
orain!**


902 010 735
Telefonoa 24 orduz.

Imajina dezakezun guztia!


Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!

Aukera ezazu taktikarik egokiena

Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...



- Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...
- Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...
- Jokoaren estatistikak
- Jokaldi onenen errepikapenak...
- Lau futbol zelai aukeran.
- Partiduak egunez, gauez, euriarekin...



euskal selekzioaren bufanda
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,
72 orduan bidaltze gasturik gabe



**35,95
euro**

Jokoa orain erosiz gero, bufanda eta garraioa

DOAN

Aurtengo Santamas jaietan inoiz baino artisau gehiago izango da

Aurten, inoiz baino artisau gehiago izango dira Santamas jaietan, 45 postu izango dira-eta. Artisau langintzen jarduera eta erakusketak domekan izango da, goizeko hamar eta erdietan, Jokin Zaitegi plazan. Egongo da, hortaz, zer ikusi eta zer erosi aurtengo Santamas jaietan ere.

Aurten, artisau mordoak elkartuko da Santamas jaietan, inoiz baino gehiago. Hala, Jokin Zaitegi plaza lepo egongo da.

1978. urtetik hona, Santamas Komisiñuek artisau feria hori gogotsu antolatzen du. Hasiera baten, artisauen lanak Portaloian izaten ziren ikusgai. Geroago, herriko plazaren kontzejupean eta parrokiako arkupetan izan ziren urtean barrena egindako lanak erakusten. Eta 1994az geroztik, Jokin Zaitegi plaza da artisauen kokaleku.

XXV. aldi honek bi berezitasun izango ditu: lehena, Arrasateko artisau guztiak bata bestearen ondoan jarriko dituztela; eta bigarrena, aurtengo Santamas jaietan inoiz baino artisau gehiago izango dela. Argi dago Jokin Zaitegi plazan ez dagoela 45 artisaurendako lekua; eta, horrenbestez, Garibai etorbideko arkupetan ere izango dira.

LEKU ASKOTATIK ETORRITAKO ARTISAUAK
Domekan, arrasatearrez gainera, herri askotako artisauak ere gerturatuko dira Santamas jaientara. Ibarreko hainbat artisau izango dira, baina Euskal Herriko beste hainbat lekutako artisauak ere izango dira gurean: bizkaitarrak, arabarrak, gipuzkoa-

rrak eta nafarrak. Hala, artisau guztiek euren herrietan gustu handiz landutako ekoizpenak ekarriko dituzte, arrasatearrok eta kanpotarrek bistaz gozatu eta, aukera izanez gero, eros ditzagun. Horrenbestez, argi dago inoiz baino artisau gehiago egonda inoiz baino produktu gehiago egongo direla ikusgai: zeramika, serigrafia, tapizak,

larrua, bitxigintza, tailagintza, burdingintza, upelgintza, egur lanak, oinetakoak, makilak, albarkak, harri txikiak, kape-lak, ikurrak, musika tresnak, oi-halak, eskopetak, kristala, adarrak... Zerrenda amaigabea osatzen dute domekan Jokin Zaitegi plazan izango diren produktu guztiek. Onena bertatik bertara ikustea izango da.

Guztira, 45 artisau izango dira, eta arrasatearrek elkarren ondoan egongo dira

Artisauak, Jokin Zaitegi plazaz gainera, Garibai etorbidean ere izango dira



Euskal Herri osoko produktuak izango dira ikusgai domekan.

UMEENTXOKOA



ANDER GILLENIA

Umeendako ere herri kirolak izango dira

Santamas jaiak nagusiendako jaiak dira, baina gaztetxoek ere bikain pasatzeko aukera izango dute; izan ere, domekan, goizeko hamaiketan hasita, umeen txokoa izango da Laubide plazan. Umeen txokoan izango diren jolasetan 3 eta 12 urte bitarteko umeak jolastu ahal izango dira.

Domekan, Zaldibarren, herri kirolak izango dira protagonista, baina ez Zaldibarren bakarrik, Laubide plazan gaztetxoak ere herri-kiroletan arituko dira-eta: besteak beste, Arrasateko gaztetxoek Iñaxio Perurenaren pausoak jarraitu ahal izango dituzte.

Gaztetxoek sokatiran, txingetan, harriak jasotzen edo gurdia jaurtitzen daukaten abilezia erakutsi ahal izango dute. Horrez gainera, baina, izango da beste jolasik: zaku lasterketa, kontrabandista lasterketa, lokotx bilketa... Jolas asko gaztetxoek ere goiz-pasa ederra egin dezaten. /X.U.



lenteria
B
Bea

Otalora kalea 21 • ARRASATE
Tel.: 943 79 12 05



Samsonite

HIRE

LIBURU ETA PAPERDENDA

BIDAIARAKO ETA NARRUZKO ARTIKULOAK

Iturriotz, 4 • Tel./Faxa: 943 79 14 84

Zubizameta


Denda berezia

Ondo pasatu Santamasak


GALERIA 44

Zerkaosteta 8 Tel.: 943 - 79 90 50
ARRASATE


ETXEAN NAHI DITUUGU!



JON AGIRRE



JOSU URIBETXEBARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



KEPA URRA




JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT



AMAIA ARRIETA




JOSE I. GAZTAÑAGA




JESUS MARI ZABARTE



ENRIKE LETONA




JOSE GABRIEL URIZAR



ARTZ GOMEZ



TXUS GOIKOETXEA



ERREFUXIATUAK

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko abenduaren 20a / 51. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Olentzero eta bertso-saioak, biak izango dira Aramaion Eguberrietan

UBANE MADERA

Euskal Herriko ikazkinik ezagunenak hartu du Aramaio-rako bidea, eta martitzenean iritsiko da, kale egin barik, mendian behera. Betiko moduan, erregaluz betetako zakukada ekarriko du gure Olentzerok. Eta okerra izan denarendako, ikatza!

Hain zuzen, hilaren 24an, 18:00etan, iritsiko da Olentzero Aramaioara. Menditik jaitsiko denez, pilotalekuan egingo diote harrera. Han geru izango du plazaraino eramango duen traktorea.

GUTUNAK JASOTZEKO

Plazarako bidean gozokiak banatuko ditu Olentzerok. Eta, behin plazara iristen denean, Bixente Goikoetxea abesbatzako kideek *Hator*, *hator* abestia kantatuko diote. Gero, Sastiña ermitara sartuko da gure Olentzero, eta han umeen gutunak jasoko ditu eta oparixkak emango dizkie. Bitartean, abesbatza kanpoan izango da, kantuan. Eta Olentzerorengana doazenendako gaztainak



Arratsaldeko seietan egingo zaio harrera geure Olentzerori; pilotalekuaren ondoan, Olentzero menditik dator-eta.

banatuko dituzte.

Jakina, hori guztia egin eta gero, Olentzerok Aramaioko etxe-

ak bisitatuko ditu gauean; eta poliki-poliki erregaluz betetako zakua hustuz joango da, Aramaioko ume-

ek opariak jaso ahala. Hortaz, ez ahaztu gure ikazkinak oso gustuko dituela taloa eta esnea, indarrak

Bertso saioa abenduaren 27an da, kultura etxean; Bertso Eskolakoek ere abestuko dute

berreskuratzeko; eta hori ez bada posible, edozein gaileta ere gustur hartuko du Olentzerok.

BERTSO SAIOA

Bestalde, azken urteotako ohiturari segituz, urtea bukatzearekin, bertso saioa izango da Aramaion. Hain zuzen ere, abenduaren 27an izango da, 20:00etan, kultura etxean. Aitor Mendiluze, Jon Maia, Ruben Sánchez eta Enaitz Alustiza bertsolariak arituko dira kantuan, eta Manex Agirre izango da gai-jartzaile.

Edozelan ere, saio hori baino lehen, Bertso Eskolako bertsolari gazteek saioa eskainiko dute; iazko bertso-tramaren antzerkioa izango da, hain justu ere.

HERRITARREN HITZA / Manex Agirre • Ikaslea

Bihotzongatik

Badira urte batzuk (ez dezazuela pentsa gehiegi direnik, gazte eta berde-marroixka gara oraindik eta) eguberri-gabonen garai ponpo-xoa euskal presoeren errebindikazioen kontuarekin lotzen dudala zuzenean. Gauza bat eta bera dira kaleetako argiak, Anbotopeko elurrak eta plazarako gaztaina-janaren irudiak bertako kontzentrazio eta autokarabaneekin lotzea. Jabetzen naiz hala ere, gazte berde-marroixka bat naizen aldetik, Euskal Herri umel honetan betidanik izan den sentimendua dela hori, nik ume izateari utzi baino lehena-go ere bazegoela pankarta edo

kartelen bat edozein herritan Olentzeroren panpinaren ondoan, eta *Hator-hator*-en notak ditut horren testigu bizi. Nire kasua da aipatu nahi dudana: Gabonetan Olentzero ez diren beste gauzei begiratzeko garaia heldu (14-15 urte berantiar?) gogoan dudana lehen imajina Uribarri aldean auto-ilara baten bozinazoak dira.

Eta agian hori da txarrena, eta nire eta herri osoaren burua salatzen duena. Hamabost egun bizitza bat izan



"Odol horrekin biziberri daitezela haien zainak"

Baina nork joko luke bozina Uribarrin urtebetean batere pausarik gabe, atsedenek gabe? Izan behar ote luke gure eskakizun batek urtebeteko iraupena duen klaxona? Eh?

daitezkeela diote, edo bidaia bat, edo segundo bakar batean pasa daitezkeela. Presoentzat ez. Presoentzat hamabost egun hamabost marra horman eginak dira, beren hogeita lau ordu justuekin. Eta hilabete bat hilabete bat da, eta urtebete, urtebete.

mmmmmm...

Gazte berde-marroixka garen aldetik biolento samarrek garenez, hona nire proposamena: zabaldu zuen bihotz astunak, hilkorrok, itxaropenaren bidez ez bada sukaldeko aitzoren bidez (bai bai, gaztainen azala kentzeko ere erabil daitezkeen aitzo horretan bidez, edozein metodo da zilegi, txipli txapla pum), eta ateratzen den odol iluna izan bedi urte osorako, eta ez hamabost egun miserabeltarako. eta odol horrekin biziberri daitezela haien eta gure zainak. Hemen behar ditugu eta.

Eguberri-gabon!

LABUR

Aukeratu dute Udalerako idazkaria

Donostiatik etorri da Udaleko idazkari berria. Nagore Artamendi Garmendia du izena, eta dagoeneko ekin dio beharriari. Hain zuzen ere, egun batzuk eman ditu orain arteko idazkari Aitor Leturiondorekin ikasten, eta joan den abenduaren 17az geroztik Nagore bakarrik ari da lanean. Gogora dezagun 45 lagun aurkeztu zirela lanpostu horretarako; eta horien artean, Nagore Artamendi izan da lehena.

Era berean, Aitor Leturiondok abenduaren 16an hartu zuen bere lanpostu berrirako bidea, Donostiarako bidea.

LABUR

Presoen aldeko ekimenak izango dira Eguberrietan

UBANE MADERA

Etetik falta direnak ere gogoan izango dituzte Gabon jaietan Aramaion. Betiko moduan, besteak beste, hilaren 24an, auto-karabana egingo dute auzoz auzo.

Auto-karabana egiteko 09:00etan ipini dute hitzordua, pilotaleku kanpoaldean. Han autoetan sartu, eta baserriz baserri joango dira

kantuan, bertsolariek lagunduta. Herrikideen laguntza eskatuko dute, presoen alde.

Bestalde, Gabon egunean kale bilkura egingo dute, Zubiondon, 13:00etan.

Eta, aste horrekin bukatzeko, barikuan, abenduaren 27an, Senideek hileroko kale bilkura egingo dute, 19:00etan, herriko plazan. Hain zuzen ere, herritarrei kale bilkura horretan parte hartzeko gonbita egin diete.

Era berean, hurrengo astean, Gabon zahar egunean ere egingo dute presoen aldeko ekimena. Hain zuzen ere, 20:00etarako kale bilkura deitu dute antolatzaileek.

BIDEOA

Eta, Eguberrietako ekimenekin bukatzeko, urtarrilaren 3an (barikua), Torturaren Aurkako Taldeak egindako bideo bat aurkeztuko dute, herriko kultura etxean, 18:30ean.


Urteko azkeneko osoko bilkura egin zuten

Urtea bukatu baino lehen gai ugari landu zituen udalbatzarrek osoko bilkuran. Etxaguengo ur hornidura berba-gai izan zuten, esate baterako, baita Gurasoen Elkartearen eta Kontseiluaren dirulaguntzak ere. Horrez gainera, Arabako Biltzar Nagusien gaineko mozio bat ere aztertu zuten zinegotziek osoko bilkuran.

BOTEPRONTOAN/ Jorge Núñez · Bañera taldearen entrenatzaileetako bat

“Kalean jende guztiak agurtzen nau, gazteek zein nagusiek, eta etxean nagoela sentiarazten naute”

Jorge Núñez Guatemalako Livingston herrikoa da, Belizeren eta Honduraren artean dagoen Karibeko herritxo batekoa. Baina hiru urte daramatza Aramaion, herriko emakume batekin ezkondu; seme-alaba bi dituzte eta bigarrena, Jati, aramaioarra da jaiotzez. Oso pozik dagoela esan digu Jorgek, baita abenduaren 12an bere urtebetetzea izan zela ere:



Zelan iritsi zinen hona?
Emakume euskaldun bati esker ezagutu dut hau. Etortzeko gonbita egin zidan. Eta oso pozik nago, jendeak ondo tratatu nauelako, ez naute baztertu... Eta hori ez nuen espero. Hau ez da kontatzen duten modukoa. Bestalde, hemen gazte asko dago, eta gurako nuke gazteok hara joatea, Guatemala ezagutzera.
Seme-alabak ere badituzue, ezta?
Bai: Esteban eta Jati. Jati hemen jaio zen eta Esteban Guatemalan; 5 urterekin etorri zen hona, eta orain 7 ditu. Eta dagoeneko guztiz aramaioarra da. Espainolez eta gure jatorrizko hizkuntzan –garifuna– baino hobeto hitz egiten du euskaraz. Dagoeneko hiru urte daramatzazu hemen. Oraindik igartzen

duzu zure jaioterriaren falta?
Momentuak egoten dira, bereziki, hango jaiak direnean. Baina geroago eta aramaioarrago sentitzen naiz, orain, areto futbol talde gaztea ere entrenatzen dut eta.

Eta, Karibetik etorrira, ohitu zara hemengo hotzekin?
Hasierako hiru hilabeteetan nahiko gaizki ibili nintzen. Karibean 35-40 graduren arteko temperaturekin ohituta gaude, eta orain, hemen dagoen gradu bakarrarekin konparatzen badugu...

Hona iritsi zienean, zerk harritu zintuen gehien?
Etxeak eta jendearen arteko harremana.

Zergatik?
Harrizko etxe handi mordera dago hemen. Eta antzinako etxe asko. Hori han dagoeneko ia ez da ikusten. Guatemalako

antzinako hiriburuan –Antigua Guatemala– ikusten da bat edo beste, baina ez gehiago.

Eta jendearen arteko harremanek, zergatik?
Lehen esan dudan moduan, beste guztien moduan hartzen nautilako, ez dago bazterkeriarik. Kalean jende guztiak agurtzen nau, gazteek zein nagusiek, eta etxean moduan nagoela sentiarazten naute.

Zer da hemendik gutxien gustatzen zaizuna?
Hemengo giroa, opako samarra delako. Nire herrian, adibidez, Gabonetan kalera irteten gara jai egitera, etxez etxe ere ibiltzen gara... Eta, adibidez, abenduaren 24an, taberna guztiak zabalik egoten dira gaueko ordu txikiak arte.

Eta gehien gustatzen zaizuna?
Oso ondo konpontzen garela nire laguna eta biok; seme-alabak lasai-lasai joan ahal direla Aramaio eskolara; eta gure artean elkar ezagutzen dugula denok eta elkarren arteko konfiantza dela nagusi Aramaion, eta horrelakorik ez dago nire jaioterrian.

Zuk zeuk zerbait gehiago esan gura baduzu?
Eskerrak ematea guztiagatik, bereziki, elkarriketa hau egiteagatik.

“Gure semeak hobeto berba egiten du euskaraz espainolez edo gura jaioterriko hizkuntzan baino”

“Beste guztien moduan hartzen naute; hemen ez dago bazterkeriarik”

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaizta (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Pisatxoa	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behar dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAREN EMAITZAK
Gazteek 7-3 galdu zuten Aurrera Vitoria taldearen kontra; kadeteek 9-7 irabazi zitoten Baro Calo taldeari eta neskek 9-2 galdu zuten Lan eta Jolas taldearen kontra. Hurrengo partidua honakoa dira (zapatuan): gazteek Aramaion jokatu dute, 11:30ean, Cafeteria Atenea taldearen kontra; neskek atzeratutako partidua dute, Abetxukon, 11:30ean, Virgen Niña taldearen kontra. Eta kadeteek ez dute jokatu.

ZINEA
Lilo & Spich filma izango da.



EGIN DEZAGUN
BARKOTZAK GURE
AHALEGINTXOA

Zahar Berri
Pablo Uranga 4, beheha
Telf.: 943 711 721
943 771 226
zaharberri@aedeikarte.com

ERRETRATUZHARRA

Santamasetan,
bertsolari
taldea

Santamasetan ere lehenagoko denborak gogoratuko ditugu gure erretratu zaharrarekin. 1985. urtera egingo dugu salto oraingoan. 17 urte bakarrik egingo dugu atzera, baina ordutik hona aldatu da ohituraren bat zein beste Santamas jaien baitan. Horren adibide da oraingo asteko erretratu zaharra.

Seber Altube plazan dago aterata erretratua. Sasoi hartan bertsolaritza ibiltzen zen taldearen erretratua da. Koplariekin daude bertsolariak, nahiz eta haiek ez agertu erretratuan (Jon eta Aitor Sarasua, Danel Goikolea, Jon Iñaki Izartzelaia...). Gure berriemaileak kontatu digunez, Santamasetan bertsolari talde hark astoa jaisten zuen Bedoñako Uribarren baseritik. Astoak otzarak edo saskiak zituen albo bietan, eta han bertso-paperak, bozgorailuak... sartzen zizkioten (erretratuan, anplifikadore baten antena ikusten da, adibidez). Denak batera, asto eta guzti, kalerik kale ibiltzen ziren koplazaharrak eta bertsoak kantatzen, zenbaitetan, trikitiak lagunduta. Eta



gero, kiroldegira joaten ziren, asto eta guzti, bazkaltzera. Gure berriemaileak gogoratzen du behin kiroldegian bazkaltzen ari zirela eta astoa kanpoko zelaian lotuta zegoela, elurra hasi zuela. Dena zuritu zuen; guztia batuta (azoka, asto eta elurra), Santamasetako itxura ezin hobea hartu zuen egunak.

Honako haiek agertzen dira erretratuan, ezkerretik hasita: Esteban Umerez (bozgorailua duena), Eneko Bergaretxe (besarkatzen ari direna), Aito Zabalo (irribarre egiten dabilena), Juanito Saizar, Unai Bergaretxe, betaurrekoduna ezezaguna, haren atzekoa Patxi Agirrebeña, eskua


jertsepean duena Patxi Goikolea, emakumea ezezaguna, eta bazterrean dagoena Aitor Zabaloren aita.

Argazkia eta Informazioa: Unai Bergaretxe
Urtea: 1984-85. urtea

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Arrasateko
udaletxeko
arkupeak

Azken 30 urteotan Arrasateko udaletxeko arkupeak ez dira askorik aldatu, baina handik ikusten dena dezente aldatu da. Herriko plazan aldaketa handiak izan dira, eta San Juan elizaren berrikuntza lanek plazaren itxura guztiz aldatu zuten. Herriko plaza umeen jolastoki ere bada, nahiz eta askotan futboleko egiteagatik hainbat arazo izan diren.



≈ 1972 Argazkian herriko plaza argizatzen zuen argia ikusten da, elizari eta udaletxeari lotuta dagoen kable bati itsatsita.



2002 Elizako aterpe barik, badirudi herriko plaza handiagoa dela. Bestalde, aterpean izaten zen usain txarraren arazoa konpondu zuten.



Udalatx
Inmobiliari A

Santamas zoriontsuak izan!

Maalako Errabala 27-behea ARRASATE
Tel.: 943 79 59 99
E-posta: udalatx@euskalnet.net
Web orria: www.euskalnet.net/udalatx

- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasaziokak
- Aholkularitza Fiskala
- Errentamenduak
- Kontratuak

ZABALA
oinetakoa

54 urtean elkarrekin ibili gara
Ospa ditzagun Santamasak
Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27






Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76




*Argi kolore bat dago,
emozio bakoitzarentzat.*

Ehune

Apainketa

Garibai, 8 • Biteri Kantoia
Tel: 943 77 11 48
20500 ARRASATE
Gipuzkoa



Edozein egoera menderatzen
lagunduko dizun auto betekin amets egiten duzu?
Vectra berria Orain, 16.500 €-tik aurrera.



Opel Vectra berria

Xasis berria Gidatzeko Sistema Interaktiboarekin (IDS), non direkzioak, frenoak eta esekidurak elkarrekin lan egiten duten errepidearen kontrol osoa lortzeko. Vectra guztiz berritua, Ecotec balbula anitzeko motor gama berritzailearekin: 2.2 DTI / 125 ZP edo 3.2 V6 / 211 ZP edo potentzia handiko motorra duen GTS bertsioa.



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

*Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan Vectra Club 1.8 16 V modeloon. Hau guztia barne: garraioa, BEZa, matrikulazio zerga, Prever Plana eta berria ez den ibilgailuen akzioa. Hil bukaera arteko promozioa. Iragarkian agertzen den modeloa ez da eskaintzen dena.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

www.giauto.es